



Gura barik intoxika daitezkeen arren, badira animaliak hiltzeko helburua dutenak ere. ▶22-23

Getxo en sus calles. Con nombre propio liburua idatzi du Javier Campo algortarrak. Abegikor berba egin du burututako ikerketaren gainean. ▶15



hiruka

Uribe Kostako astekaria



94. zenbakia

2017ko
maiatzaren 11tik
maiatzaren 17ra arte



Botoen %96 baiezkoak

Parte-hartzea %19,62koa izan arren, Uribe Kosta Adosekoak pozik daude erabakitzeko eskubidea gauzatu izanagatik. ▶8-9



«Literaturaz bizi naiz, baina... ez da erraza»

Elkarrekin Esnatzeko Ordua eleberriaren gainean, Euskal Herriko azken 100 urteen inguruan, jardungo da idazle ondarrutarra Kurtzio kultur etxean.

Karmele Urresti, Txomin Letamendi eta Manu Sota hirukotearen istorioaren inguruan berba egingo du Kirmen Uribek Sopelan. Idazlearen hirugarren nobela horrek Euskal

Herriko historiaren azken 100 urteak kontatzen ditu, dena galdu duen emakume ondarrutar baten ikuspegitik. Gaia, forma eta idazketa-prozesua izango ditu berbabide. ▶16-17

HERRIZ HERRI ERANDIO

Lan-poltsak zabaldu ditu Erandiok

Hamar lanpostu betetzeko lan-poltsak osatzeko deialdia egin du Udalak, noizbehinkako premiei erantzuteko.

Honako lanpostu hauetarako sortu dituzte lan-poltsak: administrari, liburutegiko arduradun, musika-irakasle, euskaltegiko irakasle, gizarte langile, peoi, lur-emaile, garbitzaile, atezain, eta etxeko laguntzaile. Bost lanpostutan euskara-maila egiaztatu beharra dago; besteetan, aintzat hartuko da. ▶5

Getxoko sanisidroak ospatuko dituzte egunotan, inguruko baserriar denei gorazarre egiteko jai. ▶3

Lemoizko zentral nuklearraren lurrak euskal erakundeei emango dizkiela esan du Espainiako Gobernuak.▶10

Uribe Kostako Berbalagunen taldeetan izena emateko unerik onena orain da, urte osoan egin badaiteke ere. ▶11

Gorka Knörrek Plentziako bosgarren Kantalagunean abestuko du hilaren 12an, Goñi Portal kultur-etxean. ▶14



Pentsalekutik

**MAITANE
NEREKAN UMARAN**
Ezertan aditua, askotan aritua

Euskararen Txantxagorriari tiro egin diot

Baketze garaian gaude-la diote; horregatik, ez da politikoki zuzena tiro egiteaz hitz egitea. Baina, Ortuzarrek esanda, armak uztea ez omen denez hain garrantzitsua (Metroan argazkiak ateratzearekin konparatuta ez behintzat), txori bat erail dudala aitortuko dut. Aldez aurretik, doluminak Uribe Kostako militante animalistei; nire eskerrik beroena Algortako Arene kalekoei, entregatu ez dituzten pistolak uzteagatik. Kontua da aurreko batean ume batez erditzea okurritu zitzaidala. Kasualitatez, garai bertsuan, Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osakidetzak, «Lagundu egiguzu hobetzen: Aukeratu zure hizkuntza!» goiburuko kanpaina martxan jarri zuten. Berangoko osasun-zentrorra hurbildu garen (umea bertan errolatuta dago). Harrerako emakume adeitsu batek azaldu digu Berangon ez dagoela pedia-tra euskaldunik, baina umearen eskubidea dela euskaraz artatua izatea. Erreklamazio bat bete, zentralera bidali, erantzuna jaso, beste bat bete, bidali, jaso... hor hasi zen hizkuntza normalizazioaren izenean egin beharreko ibilbide anormal amaigabea. 5 hilabeteren ostean, ez dugu pedia-tra euskaldunik. Algortako anbulatorioan ba ei dago bat, baina ez dakit zein irizpideren arabera, umeak ezin du bertara joan, etxetik hurbilen duen hurrengoa bada ere. Antzeko egoerak bizi izan dituzuenek ulertuko duzue tamainako «a-normalizazioak» sortzen duen amorrua; horregatik pistola hartu eta txantxagorri ustez euskaldun peto horren bila joan naiz. Esan dit errua beste batzuen delat, baina horiei tiro egiteak espetxean dispersatuta urte dezente suposatuko dizkidanez (gorroto krimena omen), berari egin diot tiro; nire alabari barre egin diolako besoetako haurra besterik ez denean. Goian bego! ◀

Getxo

Hiriko mugikortasuna hobetzeko plana, abian



info+: www.getxo.eus.

Udalak inkesta bat bidaliko du 4.000 etxetara, biztanleen mugikortasun-ohiturak ezagutzeko asmoz.

Hiri-mugikortasunaren kultura berriak aurrera egingo du Getxon; alderdi politikoek adostu dute egitekoa, eta ikuspegia herritarrek elkar banatuko dute, horiek ere iritzia eman dezaten. Hala, herritarren konpromisoa beharrezkoa izango da hasieratik,

parte-hartze prozesu zabal baten bitartez. Horren denaren helburua da hiri mugikortasuneko eredu osasungarriagoa, eraginkorragoa eta iraunkorragoa bultzatzea. Horretarako Getxoko Hiri Mugikortasun Iraunkorrerako Plana (HMIP) prestatuko dute datozen 6 hiletan. Plana amaitutakoan, Getxok mugikortasunari lotutako neurri-sorta bat abiaraziko du, esaterako hiri-antolamendurako politiketan eta aparkamenduaren kudeaketan. Plana martxan ipini dute daborduko, eta lan-prozesu bi ditu: diagnostiko teknikoa eta partaide-tza-prozesua. Modu berean, egunotan

inkesta egingo diete udalerriko 4.000 etxeko bizilagunei, haien mugikortasun-ohiturak ezagutzeko. Inkestak ausaz hautatuko diren eta udalerriko barruti guztien artean modu homogeneoan banatuta dauden hainbat etxetara bidaliko dituzte. Laster etxe horietan gutun batzuk jasoko dituzte, bete beharreko inprimakiak eta horretarako jarraibideak azaltzen dituztenak. Hala gura izanez gero, inkesta beteko duten guztiek zozketa batean parte hartuko dute: planaren idazketa esleitu zaion enpresak 150 euroko bonu bi zozkatuko ditu, udalerriko dendetan erosteko. ◀

Seinaleztapen turistiko berria ipini dute Ereaga hondartzan

Getxoko Turismo Bulegoak informazio-panel berria ipini du Ereagan, hondartzaren ezaugarrien inguruko oinarriko datuak ezagutarazteko. Besteak beste morfologia, olatuak, korranteak, segurtasun neurriak eta surflarien kodea bezalako datuak agertzen dira argibide-taula horretan. Basquetour Turismoaren Euskal Agentziaren bidez, Eusko Jaurlaritzaren egiten dabiren hondartzaren seinaleztapen turistikoaren proiektuan oinarritzen da ekimen hori; eta proiektuaren helburua da bisitarien intereserako informazio turistikoa eskaintzea, bertako planen eta baliabideen berri emanez. Ereagan ipinitako panelari dagokionez, hiru plan sartu dituzte. Modu berean,



hainbat segurtasun-neurri jasotzen ditu surfa egiten dutenei zuzendutakoak, berbarako: bainu-guneak eta sorosleek emandako aginduak errespetatzea, surflarien kodea errespetatzea eta aholkua eskatzea normalean hondartzan horretan surfa egiten dutenei. ◀

Pertsona nagusien etxeetan suteak aurreikusteko gailuak

Suteak antzemateko gailuak ipiniko dituzte Udalak 1932an jaio eta bakarrik edo 65 urtetik gorako pertsona batek bizi direnen etxebizitzetan. Detektatzaileak alarma-funtzioa beteko lukete etxean sute bat sortu edo arriskutsua izan daitekeen kea egongo balitz. Detektatzaileak doan eta obra egin barik instalatzen den aparatu txiki bat da. Gainera, etxebizitzaren krokis bat egingo du teknikariak, ebakuazioa egiten laguntzeko, beharrezkoa izango balitz. Hurrengo egunotan eskutitz bana bidaliko diete onuradunei, zerbitzuaren eta bere funtzionamenduaren berri emateko. Ostean, aipatutako pertsonen telefono dei bat jasoko dute detektatzaileak ipintzeko hitzordua adosteko. ◀

Getxo

Baserritarren gorazarretan



Maiatzaren 15era arte iraungo dute jaiak, eta idi-probek emango diote amaiera sanisidroei.

Barikutik astelehenera bitartean izango dira Getxoko jaiak; askotariko ekimenek osatuko dute egitarau oparoa.

Jaiaren usaina hedatzen dabil egunotan Getxo inguruan; akordura musika, festa, dantza eta egundoko giroa! Udaren atarian, maiatzaren erdialdean, helduko dira San Isidro jaiak: nekazari, laborari eta baserritarren omenezko festa-egunak, udalerriri izena ematen dion gunean, Getxon. Aurton, Geroako 5. mailako ikasleek txupina botatzeagaz batera hasiko dira jaiak hilaren 12an, 17:00etan. Hala ere, aurreko egunetan ere gozatzeko aukera egon da. Izan ere, joan den zapatuan, hilaren 6an, dantzariak ibili ziren kalerik kale, Ma-

lakatetik hasita; ondoren, dantzaldia egin zuten kiroldegiko aparkalekuan. Eguenean, osteran, pilota-partidak izango dira frontoian. Dena den, jaiaren mamia barikutik aurrerako egitarauak osatzen du. Aurten udalerriri osoan da jai-eguna maiatzaren 15a; hori dela eta, astelehenera bitarteko ekitaldiz betetako lau egun prestatu ditu jai-batzordeak. Horrenbestez, inguruotan aspertzeko tarterik ez da faltako, herri-bazkaria, jokoak, mus-txapelketa, kontzertuak, dantzaldiak, grafitiak...

Jai-batzordeko kideek jakinarazi dutenez, aurten ere gaueko autobus-zerbitzua egongo da sanisidroetan, «auzoko konexioa gauez hobetzeko eta etxera bueltako bidea lasaitasunez egin ahal izateko». Bestalde, Geroako ikasleen marrazkiak ikusteko aukera ere egongo da egunotan kiroldegiko sarrerako leihoetan. ◀

Maiatzak 11-15 San Isidro jaiak

Egitaraua

Maiatzak 12, barikua

- 17:00 Txupina jaurtitzea eta pregoia irakurtzea (Malakate).
- 17:00 Grafitiak (Benta).
- 17:30 Parkean olgetan (Malakate), Sendiren eskumenez.
- 17:30 Txokolatea banatuko dute (Malakate).
- 18:00 Kiniela: paleta eta goma partidak (frontoia).
- 18:30 Buruhandiak (Malakaten hasita).
- 19:00 Mus-Txapelketa (Benta, Alkartetxe).
- 20:00 Zaratamba Batukada (Malakaten hasita).
- 20:30 Kontzertuak: Bidean (erromeria-taldea), Hexen, Zazkel, Akatz eta DJ Txankleta (aparkalekua).

Maiatzak 13, zapatua

- 10:30 Talo- eta irrati-tailerrak (Malakate), Argia fundazioak antolatuta.
- 11:00 Puzgarriak eta slackline jarduera (Malakate).
- 12:00 Txopolis Fanfarrea (kalerik kale).
- 13:00 Herri-kirolen erakustaldia (probalekua).
- 15:00 Herri-bazkaria (aparkalekua), Auzo elkarteak antolatuta.
- 19:00 Poteo girotua.
- 20:30 Zumba jarduera, Aziz-gaz (Malakate).
- 21:00 Herrien Jaialdia (frontoia), bertoko Itxas Argia eta Kataluniako Ball de Gitanes de montemeló dantza-taldeakaz.
- 21:30 DJ Deustoo! (Malakate).
- 23:00 Euskabaret ibiltaria (aparkalekua)
- 00:15 Urrats erromeria-taldea (aparkalekua)

Maiatzak 14, domeka

- 10:00 Bertoko ekoizleen azoka (aparkalekua).
- 11:00 Tosuko proiektua ezagutzeko ibilbide gidatua eta lancha (aparkalekua).
- 11:00 Isidro Deunaren XXVII. Eskupilota Txapelketaren finalak (frontoia).
- 11:30 Umeentzako eta helduentzako tailerrak (aparkalekua).
- 12:00 Andrés Isasi Musikalia Martxing Band (Malakaten hasita).
- 13:00 Bertso-saioa: Aritz Landeta, Maider Barañano, Maddalen Ruesgas, Irene Ezkurra, Eneko Elordui eta Naroa Torralba. (aparkalekua).
- 16:30 Patinaje Show Getxoren erakustaldia (frontoia)
- 17:00 Dantza-plaza Dangiliske taldeagaz (aparkalekua).
- 19:30 Bidean erromeria-taldearen eta The binilo's-en kontzertua (aparkalekua).

ADOS
iz
Ondo nasa jaietan!

el almacén

ZUMBA ETA ASKOZ ERE GEHIAGO
MAIDAGAN 45 (KOOPERATIVA ZAHARRA)

ARROPA DENDA LEKUZ ALDATUKO DUGU!
HEMEN AURKITUKO DUZU: BIDEZABAL 32

GETXO

AZKAYO
1980TIK ERAIKUNTZAREN MUNDUAGAZ LOTUTA.

Ilusinoz beteta egiten dogu behar...

gehien atsegin dogun hornetan.

GETXOKO
ITXAS ARGIA
DANTZA TALDEA

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

jah eta jolas

Zure ekitaldietarako lekurik egokiena!
Zuk antolatu edo gure esku utzi.

www.jandajolas.com

Getxo

Udarako eskaintza zabala, udalekuetan



Udalerriko gazteek askotariko aukerak izango dituzte uda sasoiari.

Bapiruke udaleku irekietan eta Udalaren herri-udalekuetan izena emateko aukera, zabalik.

Udaren etorreragaz batera, etorriko dira udalekuak. Getxon, besteak beste, aukera bi daude: Bizarra Lepoan euskara elkarteak antolatzen dituen Bapiruke udaleku irekiak eta Getxoko Udalaren herriko udale-

kuak. Bapiruken izena emateko aukera izango dute: bazkideek, hilaren 15ean eta 16an; bazkide ez direnek, maiatzaren 17an eta 18an. Guztira, 3 txanda egongo dira: ekainaren 26tik 30era, uztailaren 3tik 14ra eta uztailaren 17tik 28ra. Ostera, herriko udalekuetan, hilaren 19ra arte izena eman daiteke. Udaleku horiek Getxoko Udalaren Gazteria Zerbitzuak antolatzen ditu, 5 eta 12 urte arteko gazteei begira. ◀

info+: www.getxo.eus eta www.bizarralepoan.eus

Ekainaren 18ra arte parte har daiteke diseinu-lehiaketan

Datorren ekainaren 18ra arte luzatu dute Itzubaltzeta/Romo eta Pinuetako jaietako banderaren diseinu-lehiaketa. Lanak aipatutako eguna baino lehen bidaltzea beharrezkoa da, Itzubaltzeta/Romoko kultur etxera (Lope de Vega, 12), Gaztelubideko udal-bulegora (Langileria, 202) edo jai-batzordearen facebook orrira. Diseinuak jatorrizkoa izan beharko du, eta proposamenean 'Itzubaltzeta/Romo' eta 'Pinueta' berbak erraz identifikatzea beharrezkoa da. Banderaren diseinua hiru kolorez osatuta egongo da, gehienez; horietako bat, hondoa osatuko duena, gorria izango da. ◀

Odola emateko deialdi berezia egingo dute zapatuan

Getxoko Bihotz Handi Odol Emateko elkarteak ateraldi berezia egingo du zapatuan, hilaren 13an, 9:15etik 14:00etara, Algortako Telletxe plazan. Isabel Atxa elkarteko buruak azaldu duenez, Aste Santuko oporren ostean, Usansolo-Galdakao ospitaleko Transfusio eta Giza-Ehunen Euskal Zentroko odol-erreserbek «nabarmen» egin dute behera. Beraz, odola ematera ahalik eta jende gehien hurreratzea eskatu dute, «egoerari buelta emateko». Horretarako, jendea erakarri ahal izateko, trikitilariak eta pandero-joleak ibiliko dira inguru horretan, gunea girotzeko eta alaitzeko asmoz. ◀

Sinadurak batzeko Eguna antolatuko du domekan GEDk

Getxoko Gure Esku Dago taldeak Sinadura Bilketaren Eguna egingo du hilaren 14an. Auzoz auzoko ekimena izango da; hala, Andra Marin, Algortan, Areetan, Itzubaltzeta/Romon eta Negurin ipiniko dituzte mahaiak, 12:00etatik 14:00etara. Antolatzailerak jakinarazi dutenez, guztira hogeita hamar mahai inguru egongo dira auzo

horietako hainbat lekutan. «Orain arte egindako lanari esker, adostasun zabala lortu dugu herri-galdeketa harira», azaldu dute. Hori dela eta, sinadurak batzeagaz galdeketa abiapuntua erabat aldatu gura dute: «GEDk antolatutako ekimen bat izateko Getxoko milaka herritarrek babesitutako ekimena izatera pasatzen da». ◀

Borbodromoa

MAIATZAK 18

GOIZEZ (9:00-11:00)
ALGORTAKO SAN NIKOLAS PLAZAN
ARRATSALDEZ (19:00)
ERROMOKO POTEKO GUNEAN

EUSKARAZ
ELKARTZEKO
GUNEAK

EMAN DIZNE: WWW.GEDK.EUS

ZER DA BERBODROMOA? ZERTARAKO DA? NORENTZAT DA?

Euskara kalera ateratzea, euskararen erabilera indartzea eta indar-erakustaldia egitea dira Berbodromoaren helburuak, jendea euskaraz berbetan jarrita. Euskaldunak elkartzeko gara eta elkar ezagutuko dugu, eta jai-giroan parte hartzearen bidez nasaletako elkarrekin.

NOLA EGINGO DUGU?

Talde bakoitzean bost pertsona egongo dira, berriketa lasaian. Gai bakoitzarentzat 15 minutu egongo dira eta gai baten eta bestearen artean, parte-hartzaileak taldez mugituko dira mintzakideak era aldatuz.

GAIAK

- Runnerrak, izurrite berria gure herriko pasaleku guztietan.
- Eguraldia hilzpidetaz da maiatz; zergatik?
- Getxoko aparkalekuen antzara.

EGITARAUA

9:00 LEHEN SAIOA • 11:00 BIGARREN SAIOA • 19:00 HIRUGARREN SAIOA
Goizeko saioan amaleran MUSIKA eta PISKOLABISA
Arratsaldeko saioaren ostean PINTXO-POTEA eta KANTU-KANTARI POTEOA

ZEU ERE BEHAR ZAITUGU, ZATOZ!

619 935 541 • www.egizu.eus • egizugetxo@gmail.com

Antolatzailerak:



Babesleak:



Erandio

Lan-poltsak zabaldu ditu Udalak

Hamar lanpostu-mota betetzeko lan-poltsak osatzeko deialdia egin du Erandioko Udalak.

Udal-zerbitzuetan eman daitezkeen «aldi baterako edo noizbehinkako premiei erantzuteko», lan-poltsak osatzeko deialdia egin du Erandioko Udalak. Denera, erakundeak honako hamar lanpostu hauetarako sortu ditu lan-poltsak: peoi, lur-emaile, garbitzaile, atezain, etxeko laguntzaile, administrari, liburutegiko arduradun, musika-irakasle, euskaltegiko irakasle eta gizarte-langile.

Erakundeak jakinarazi duenez, horietako bost lanpostutarako ezinbestekoa izango da hizkuntza-eskakizunen bat aurkeztea. Hala, euskaltegiko irakasleen lan-poltsara aurkezteko,



Hautagaiek izan behar dute dagokien lan-poltsan eskatutako tituluaren jabe.

4. profila (C2) izatea beharrezkoa da; administrari, gizarte-langile edo liburutegiko arduradun izan gura dutenek 3. hizkuntza-eskakizuna izan beharko dute, EGAREN edo C1en baliokidea. Atezainek, osterak, B2 maila edo 2. profila dutela egiaztatuko beharko

dute. Musika-irakasleen kasuan, lan-poltsara aurkezteko ez dute aurretik hizkuntza-eskakizunik eskatu, baina arlo gehienetan C1 maila egiaztatuko dutenen zerrendatik hartuko dituzte behin-behineko irakasleak. Hala egingo dute honako ikasgai eta musika-

tresnakaz: Musika Hizkuntza, pianoa, akordeoia, gitarra, biolina, zeharkako flauta, klarineta, saxofoia, tronpeta eta trikiti-panderoa. Biolontxelo eta bateriaren kasuan, osterak, ez da beharrezkoa hizkuntza-eskakizunik aurkeztea, eta meritu gisa baloratuko da, puntuazio osoaren %16,66gaz. Modu berean jokatu dute peoi, lur-emaile, garbitzaile eta etxeko-laguntzaile izateko lan-poltsan.

Daborduko, eskaerak aurkez daitezke peoi, lur-emaile, garbitzaile eta atezain izateko lan-poltsan, hilaren 16ra arte. Hurrengo egunean, etxeko laguntzaile, administrari eta liburutegiko arduradunentzako lan-poltsak zabalduko dituzte, hilaren 26ra arte. Azkenik, musika-irakasleek, euskaltegiko irakasleek eta gizarte langileek maiatzaren 29tik ekainaren 7ra izango dute izena emateko aukera. ◀

info+: Erandio.eus

Kaltetutakoen nekea amaitzear dago

Udagoiengan obrak hasiko dituzte, Abaroa enpresak 2007an egoera arriskutsuan utzi zituen etxeak bota eta 113 etxebizitza berri eraikitzeke.

Azpiegiturak foru-sozietateak pasa den maiatzaren 2an atzera zuen lizitazioa Erandioko Altzaga auzoan egoera arriskutsuan dauden zenbait etxe bota eta 113 etxebizitza eta hamar merkataritza-lokal berri eraikitzeke lehiaketa. Hasiarako aurrekontua 10.931.484,51 eurokoa da, BEZ barik.

Imanol Pradales Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatuak azaldu duenez, neurri horregaz helburu bi beteko dira. Batetik, Abaroa enpresak eraginda 2007an kalte larriak jasan zituzten etxebizitzetako 66 familiari behin betiko konponbidea ematea; Abaroak kaltetutako erandioztarrak, oraingoz alokatutako etxebizitzetan bizi dira. Bestetik, eremu horren hirigintza berrituko da, foru-diputatuaren arabera.

Pradalesek iragarritako egutegiaren arabera, obren esleipena irailean egingo da, eta kontuak «ondo baldin badoaz, eta ondo joango dira, urriaren bukaeran edo azaroaren lehenengo asteetan lanak hasiko dira». Gainera, diputatuak eskertu du auzokideek orain

arte erakutsitako «pazientzia» eta Erandioko Udalaren elkarlana. Azpiegiturak obren lizentzia dauka 2015eko abuztutik. Halere, orain dela aste batzuk, Erandioko Udalak ohartarazi zion lizentzia hura iraungita zegoela; hala Udalak premiari zuen enpresa, hiru hilabeteko epean esleipen-prozedura abia zezan, Egoitz Bilbao Hirigintza zinegotziak gogora ekarri duenez. Abaroak kaltetutakoen egoera konpontzeko 2011ko martxoan sinatu zuten Erandioko Udalak eta Azpiegiturak lehenengo hitzarmena, Altzaga Ibarra eta Anton Fernández kaleetan zein San Agustin plazan egoera arriskutsuan zeuden etxeak bota eta berriak eraikitzeke. Bidean diren 113 etxebizitzetaz gainera, beste 400 gehiago dira altxatzeak, Tartangan. Helburu horregaz, kiroldegia ondoko berdegunea utzi zion Udalak foru-enpresari, iazko abuztuan. Lursailak 20.000 metro koadro baino gehiago ditu. EH Bilduk kritikatu du Altzaga «biriki berdea» galduko dela eta operazioak Babes Ofizialeko Etxebizitza kopuru txikia sortuko duela. ◀

Kale-neurketen emaitzak azalduko dizkiete auzotarrei



Soziolinguistika Klusterrak eman go du Erandioko kale eta plazetan entzuten diren hizkuntzen gaineko azken neurketaren berri, martitzenean, maiatzaren 16an. Hitzordua udal-erabileraren neurketa Erandion goiburupen. Azken neurketa hori pasa den urteko irailean egin zuten. ◀

Erandioko Gazte Asanbladak 10. urtemuga ospatuko du

Datorren zapatuan, maiatzaren 13an, Erandioko Gazte Asanblatik (EGA) daborduko erretiroa hartuta duten gizonak eta emakumeak ospatu ahal izango dute eragile horren 10. urteurrena, gaurko gazteak, koadrilak eta auzokideak eta beste herrietako lagunak batera.

EGAk iragarri duenez, kamiseta berriaz gainera «egitarau oparoagaz» ere ospatuko dute urtemuga biribila, Altzaga Ibarra 23a plazan. Hala, eguerditik aurrera, «gazteok kaleetan sortzen dugun alaitasun errebeldea!», inguruko alternatiben topaketa, azoka eta giza-futbolin erraldoiaren herri-txapelketa izango dituzte aukeran Altzagaraino hurreratuko direnek. 15:00etan, gazte

bazkaria (txartelak Altzaga La Plaza tabernan salgai) eta osteko bingo musikatua izango dira. Bazkaloste luzearen ondoren, 19:00etan Ttek! elektrotxarangak alaituko du poteoa 21:00ak arte. Ordu horretan, Ze Esatek! eta Itziarren Semeak taldeen kontzertuak hasiko dira. Ondoren, jaiak Kalezulo gazte-txean jarraituko du.

Erandioko Gazte Asanblada 2007ko apirilaren 28an aurkeztu zuten jendarean, lau hilabetez batzen hasi ondoren. Hasiarako kideek orduan azaldu zuten, «herrian gazteontzat ezer ez dagoelako» kezkatuta, 15 bat lagunek ekin zioten batzeari, gazte aisialdiaren inguruan lan egiteko asmoz. ◀

info+: Facebook.com/erandioko.gazteasanblada



Gai (des)ordena

LOHITZUNE
RODRIGUEZ AURREKOETXEA
Filosofian lizentziatua

Ez gara askatasunaren beldur

Noizean behin, munduaren egoerari begiratuta, etsipenak eta tristurak hartzen naute. Gerrak, esplotazioa, goseteak, erbestea, faxismoa, ustelkeria, tortura... dena dirua eta, finean, boterea esku gutxi batzuetan pilatzeko.

Zorionez, itxaropen-su txikiak pizten hezi den herrian bizi gara, izan ere, geure buruari etsipena ukatu diogu. Eta han edo hemen, beti izaten ditugu herritik sortuta eta modu burujabeantolatuak ekimen hunkigarriak.

Azken asteburuan, beste hainbatetan bezala, herritar askok erabaki nahi zutela erabaki zuten. Giza eskubideen aldeko hautua eginda, milaka pertsona bildu ziren larunbatean Gasteizen, preso gaixoen askatasuna eskatzeko; protestatzeaz batera, herri eredu baten alde egiten ari ziren. Egun berean, Berriozarren, 500 emakume inguru bildu ziren; bertan, estatu feministaz hitz egin zuten, bizi eredu alternatiboaz, ezagutza kolektiboaz, osasungintza feministaz...; botez feminista buruz hausnartzeaz batera, herri eredu baten alde egiten ari ziren. Igandera, Gure Esku Dago herri ekimenak galdeketa antolatu zituen Euskal Herriko hamaika herritan; parte hartzea bultzatzeaz batera, haiek ere herri eredu baten alde egiten ari ziren.

Herri adierazpen bakoitzarekin, demokratizazioarako beharrezko baldintzak ezarri goaz. Herria boteretzeko espazioak zabaldu nahiz erabiliz, pertsona guztien eskubideak eta erabakimena bermatuko dituen etorkizuneko estatua gaurdanik eraikitzen ari gara, elkarlanean. Gure tresna: jarduera soziopolitiko. Hautatzeko hautua egin izana, hain zuzen.

Eta zuk? Izan nahi duzu zure etorkizunaren jabe?

Hautatu. Erabaki. Izan burujabe. Zeure esku ere badago. ◀

Leioa

Jolas-parke zaharberituak

Leioako jolas-parkeak eraberritzen hasi da Leioako Udala. 500.000 euroko aurrekontua du urteko konponketetarako.

Herriko umeen parkeak zaharberitzen hasi da Leioako Udala: «Urtero egiten dugun lana da. Jolas-parkeak erabili egiten dira eta zaharkitzen dira», adierazi du Iban Rodríguez Etxebarriak, Hirigintza, Garraio eta Ingurugiro zinegotziak eta alkateordeak.

Euskal Etxeko plazakoa, Txorierrri, San Bartolome eta Mendibileko parkeetakoak dira Udalak konponduko dituen lehenengoak, beharizanen adierazle araberak. Ohiko zaharberitze-lanez gainera, zenbait berrikuntza ezarriko ditu parke batzuetan: Euskal Etxeko plazakoan eta Txorie-



Berritasunen artean, Udalak lau parke estaliko ditu, euria denean ere jolastu ahal izateko.

rrikoan, estaldurak ipiniko ditu, euria egiten duten egunetan ere, erabili ahal izateko. Berrikuntza modura, Udalak sei estaldura-modelo eskainiko dizkie erabiltzaileei eta herritarrei, Interneten bidez edo eskuz eskuko txostenen bidez, botoa emateko aukera edukiko

dute. Epea amaitzean, boto gehien lortuko dituen modeloa aukeratu da jolas-parkerako. Guztira, herriko lau parke estaliko dituzte 2017an, eta Txorierrrikoaren kasuan gainera, jolas-eremuaren azalera handituko dela azaldu du Rodríguez zinegotziak. ◀

Zumba klaseak, euskara hutsean eta doan, Boulevarden

Leioako Udalak maiatzaren 6an hasiera eman zion kalean zumba klaseak eskaintzeko programari. Eskolak kalean, euskaraz eta doan izango dira. Programaren helburu nagusia da euskara eta kirola uztartzea. Horrenbestez, saio guztiak euskara hutsean izango dira. Hilabete bakoitzeko lehen zapatuan antolatzen asmoa dute, 12:00etan, herriko bulebarrean. Saiotan monitore bat eta musika-ekipamendua egongo dira, behar bezalako klaseak eman ahal izateko. Bertara hurreratu gura dutenei baldintza bakarria ezarriko zaie: alde batetik, arropa eroso eta eratea (kirol-arropa edo txandala, ahal bada) eta



Zumba saioa, Boulevarden. © LEIOAKO UDALA

euskara hutsean jarduteko gogo eta jarrera, saioen garapena behar bezalako izateko. Saiok ordubete iraungo dute, eta ume, gazte zein helduei begirakoak izango dira denak. ◀

info+: Leioako Udala

Kiroldegi berria diseinatzeko batzordea, martxan

Leioako EH Bilduk kiroldegi berria diseinatzeko batzordea martxan ipintzea aldarrikatu du, Sakonetako gaur egungo egoera ikusita. Koalizio abertzalearen arabera, azken urteetan izandako hazkunde demografikoa dela eta, gaur egungo kirol-ekipamenduak txiki geratzen dabilta. «Azken urteetan egindako inbertsioak eta egokitzapenak ez dira nahikoak izan, argi dago Leioak kiroldegi berri bat behar duela. Gainera, Leioak Sakoneta kiroldegia mantendu eta berritzu behar du», adierazi du koalizioak. Hori dela eta, irailan batzorde berria martxan ipintzea proposatu du, egungo gabeziei irtenbideak aurkitzeko helburuagaz. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduera ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarria Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

ikastolenelkartea

GAVRKO
1967

50. URTEURRENA
GIZONENTZAKO
MODA

ZABALA, 9. ALGORTA
94 460 70 84

Sopela

Udaberriko jaia ospatuko dute

Ohitura zaharrei jarraituz, udaberri-jaia ospatuko dute domekan, udaletxearen aurreko plazan. Meñakoz kultur erakundeak antolatu du ekimena, Udalaren babesagaz.

Domekan, hilaren 14an, udaberriaren etorrera ospatuko dute sopoloztarrek, urta ro-aldaketatik aste batzuetara. Laugarren aldia izango da Meñakoz elkarteak jai hori ospatuko duena, eta ohiko osagaiak ez dira faltako. Hala, pandero joleek 12:30ean eman go diote hasiera jaiari, udaletxearen ondoko plazan. Ondoren, 13:00etan, euskal dantzak izango dira eta bukatzeko, 17:30etik aurrera, gidatutako dantzen erromeriak girotuko du plaza. Meñakoz kultur erakundearen helburuak euskara eta euskal kultura sustatzea dira, eta ezaguna da antolatutako erromeriengatik; baina horrez gainera, beste hainbat ekintzatan

eta jardunetan ibili dira beharrezko buru-belarri urteotan. Esate baterako, Meñakozen babesean Eguzkilore umeen dantza-taldea jaio zen, eta elkarteak harreman handia izan du nagusien dantza-taldeagaz, pandero joleakaz eta Berbalapiko sendientzako berbalagun ekimenagaz.

Udaberriko jaia ospatzeri ekin zion Meñakozek antzinako ohiturak gaurkotzeko asmoz. Sopelan ohitura zen udaberria hastean abadea langileakaz eta baserritarrakaz elkartzea, Munariraino igotzea eta bertan otoitz edo errege egitea, urte horretako uztak oparoak izan zitezten eskatzeko. Herri- bueltatzean, «katu-kakak» izeneko kanpai-hotsak jotzen zituzten. ◀



Dantza da udaberriko jaiaren osagai nagusia. © JAVIER ARNAIZ - EGUZKILORE DANTZA-TALDEA

Hesi, langabetuak teknologia berrietara hurreratzeko tailerra

Azken hilotan, Sopelako Udala Hesi programa garatzen dabil, Enplegu eta Sustapen Ekonomikoko Sailaren bitartez. Egitasmoaren helburua da udalerriko langabetuak teknologia berrietara hurreratzeko; modu berean, tailerrak bilatzen du sopoloztar horiek lan merkatuan teknologia berriek eskaintzen dituzten abantailen jabe bihurtzeko. Hesi da ekimen horren osagarria, aurretik Udalak martxan ipinitako Inklusio Soziolaboralean Laguntza Planarena, Teresa Fernández, Enplegu eta Sustapen Ekonomikoko Sailaren zinegotziak azaldu duenez. Hala, programa horren «parte-hartzaileen artean teknologia berrien inguruan gabeziak eta



Lan merkaturatzea erraztu gura du Udalak.

eskakizunak antzeman ziren». Hesi beharrezko ezagutzak hartuta, bigarren fase bat garatuko da, hau da, Hesi II. Horretan, parte-hartzaileek azalduko dituzte euren asmoak eta enpresa-proiektu baten ideia simulatuko dute Sopelako udalerrira eta ingurunearen hobekuntzan oinarrituta. ◀

Pertsona toxikoen gaineko berbaldia, Itzarturen lokalean

Itzartu emakumeen elkarteak antolatuko du eguenerako, hilaren 11rako, «Personas tóxicas vs. personas positivas» goiburuko berbaldia. Ekimena, Nuria Sorli psikologoak zuzenduko du eta, daborduko ohikoa denez, elkartearen lokalean izango da, 18:00etatik aurrera. Bestalde, Sopelako emakumeen elkarteak bere beste jarduerak jarraituko du. Hala, hilaren 18an, eguenean, genero-ikuspegiko zinemaren zikloan beste film bat proiektatuko dute: *Freeheld* (*No sin ella*, gaztelaniaz). Ohi bezala, emanaldia Kurtzio kultur etxean izango da, 18:00etan; sarrera doakoa izango da. Filma Laurel Hester eta Stacie Andréeren benetako historian oinarrituta dago. ◀

Adopzioan har daitezkeen maskotak ezagutzeko ekimena

Pasa den martxoan, Sopelako Udalak bertako bizilagunei eskatu zien animaliak jasotzeko zentroetan dauden maskotak adopta zitzaten. Eguntan, adopzio horiek errazteko ekimena abiatu du Udalak. Hala, sopoloztarrek animaliak jasotzeko zentroetan dauden maskotak ezagutzeko aukera izango dute, zentroetaraino joan barik. Animaliak honako data eta lekuetan ikusi ahal izango dira: maiatzaren 24an, eguaztenean, udaletxearen ondoko plazan (euria eginez gero, Bentatxun edo frontoian), 11:00etatik 14:00etara; hilaren 25ean, Gernika plazan, 17:00etatik 20:00etara; eta maiatzaren 26an, udaletxearen ondoko plazan berriro ere, 17:00etatik 20:00etara. ◀



Gatzarriñe bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunailkastola.eus

Sopelbusak maiatzeko ordutegi berezian murgilduta

Daborduko, martxan da Sopelbus garraio-zerbitzuko maiatzeko ordutegi berezia. Sopelako Udalak jakinarazi duenez, ordutegi hori maiatzaren 31ra arte izango da baliagarria, ekainaren 1ean udako ordutegia hasiko baita, irailaren 30era arte. Honenbestez, maiatzean, Atxabirilgo parkingetik irteten diren autobusak goizeko 07:00etan ateratzen dira, astelehentetik barikura. Haur-eskolarako zerbitzu

arruntek honako irteera-orduak dituzte: 07:00etan; 08:30ean; eta 12:00etatik 13:30era, ordu erdiro; azkenik, autobusa bana dabil 19:00etatik 20:30era, ordu erdiro, baina tutoretzapeko etxebizitzetan gelditzen da. Ikastolarako autobus bereziak, osterara, 07:30ean eta 15:00etan har daitezke. Haur-eskolatik Atxabiribilerainoko Sopelbusak 07:15etik, 20:45era har daitezke. ◀

info+: 944 065 519 / turismo@sopela.eus

Uribe Kostako lehenengo herri-galdeketak, sei herritan

Barrika

% 24,19ko parte-hartzea
1.240 herritar deituak
300 emandako botoak

	BOTOAK	%
Baiezkoak	284	94,67
Ezezkoak	13	4,33
Zuriak	1	0,33
Baliobakoak	2	0,67



Gorliz

% 17,76ko parte-hartzea
4.768 herritar deituak
847 emandako botoak

	BOTOAK	%
Baiezkoak	824	97,28
Ezezkoak	19	2,24
Zuriak	3	0,35
Baliobakoak	1	0,12



Lemoiz

% 39,09ko parte-hartzea
1.041 herritar deituak
407 emandako botoak

	BOTOAK	%
Baiezkoak	396	97,30
Ezezkoak	9	2,21
Zuriak	1	0,25
Baliobakoak	1	0,25



Eskualdeko 5.007 herritarrek gauzatu zuten euren erabakitze eskubidea domekan. Gure Esku Dago ekimenaren herri-galdeketa antolatu zituen Uribe Kosta Ados taldeak, sei herritan: Barrikan, Gorlizen, Lemoizen, Plentzian, Sopelan eta Urdulizen. Kolore askotariko 250 boluntario inguruk jardun zuten dena behar bezala garatzeko hamaika zereginetan. 25.512 herritar egon ziren botoa ematera deituak, eta 5.007 lagunek bozkatu zuten, %19,62ak. Hala, «Euskal Estatu burujabe bateko herritarra izan gura dozu?» galderari, 4.807 lagunek baietz erantzun zioten (%96); 150 lagunek, ezetz (%3); 34 boto zuriak izan ziren; 16, baliobakoak.



Plentzia

% 16,72ko parte-hartzea
3.781 herritar deituak
632 emandako botoak

	BOTOAK	%
Baiezkoak	616	97,47
Ezezkoak	14	2,22
Zuriak	1	%0,16
Baliobakoak	1	%0,16



Sopela

% 18,78ko parte-hartzea
11.116 herritar deituak
2.088 emandako botoak

	BOTOAK	%
Baiezkoak	1.990	95,31
Ezezkoak	67	3,21
Zuriak	23	1,10
Baliobakoak	8	0,38



Urduliz

% 20,55ko parte-hartzea
3.566 herritar deituak
733 emandako botoak

	BOTOAK	%
Baiezkoak	697	95,09
Ezezkoak	28	3,82
Zuriak	5	0,68
Baliobakoak	3	0,14

Lemoiz

Zentralaren etorkizuna

Euskal erakundeen esku egongo dira zentralak dituen lur-eremuak, EAJk eta PPK egindako akordioaren ondorioz.

Lemoizko zentral nuklearren lurak euskal erakundeen esku utziko ditu Espainiako Gobernuak, baita zentralaren ondoan eraikita dagoen kai-muturra ere. Hala dago adierazita EAJren eta PPren arteko akordioan. Besteak beste, hori dela eta, EAJk Kongresuan dituen bost diputatuek popularren aldeko botoa emango dute, Espainiako Gobernuak 2017rako prestatu duen Estatuko Aurrekontu Orokorren proiektuak aurrera egin dezan. Trukean, Rajoyren gobernuak hainbat konpromiso bete beharko ditu, tartean, Lemoizko zentral nuklearra euskal erakundeen



Zentral nuklearrak hartzen duen eremu osoari eragingo dio akordioak.

esku uztearena. Zentral nuklearra eraikitze lanak 1972an hasi ziren, eta proiektua 1984an geldiarazi zuten, Felipe Gonzálezren Gobernuak moratoria nuklearra ezarri ostean. Hiru hamarkada baino gehiago igaro dira ordutik, eta tarte horretan hainbat proposamen

egongo dira lursail horri etekina ateratzeko, baina batek ere ez du aurrera egin. Lurzoruak 55.000 metro koadro ditu, eta porlanezko eraikinak gelditzen dira bakarrik bertan, Basorda kalandan. Energia sortzeko gailu denak bere garaian kendu zituzten arduradunek. ◀

Euskarazko udalekuak antolatu ditu Lemoizko Udalak

Euskarazko udalekuak antolatuko ditu Lemoizko Udalak, beste urte batez. Horien helburua da udalerriko ume eta gaztetxoek aisialdian eta esparru ez-formalean euskararen erabilera handitzea. Udalekuok ekainaren 26tik uztailaren 14ra bitartean izango dira, 09:00etatik 14:00etara, Lemoizko eskolaren kanpoaldean; euria egiten duenean Urizarreko gelan edo frontoian egongo dira. Askotariko ekintzak egingo dituzte bertan, berbarako sukaldaritza-tailerrak, margolaritza-tailerrak eta irteerak. Horietan parte hartzeko interesa dutenek alde aurretik izena eman beharko dute, hilaren 12a baino lehen. Horretarako, interesdunek Armintzako kultur etxeraino hurreratu beharko dute. Udalekuak talde bitan banatuta egongo dira: 3 eta 5 urte artekoen taldea, eta 6 eta 12 urte artekoena. Guztira eskainiko dituzten 40 lekuak adin-tarte bi horien artean banatuko dituzte. ◀

info+: www.lemoiz.eu

Plentzia

Azoka agroekologikoa egingo dute domekan, Ontziola plazan

Uribeko Kostan sortu berri den Txakinarto kontsumo-taldeak azoka agroekologikoa antolatuko du domekan, hilaren 14an. Bertan, taldean kontsumitzen dituzten produktuak erakutsiko dituztela iragarri dute antolatzaileek. Goizeko 11:00etan hasita, kontzertuak, kontsumo-taldearen bideo-aurkezpena, pintxo-potea eta tailerrak egongo dira, besteak beste, Plentziako Ontziola plazan. Azokak eguerdikoko 03:00etara arte iraungo du.

Txakinarto kontsumo-taldeko ki-deek jakinarazi dutenez, azokan das-tatu eta erosi ahal izango dira honako

produktu hauek: esnekiak, barazkiak, pasta, ogia, marmeladak, pizzak, bizkotxoak eta bertako garagardoak. «Den-denak osasuntsuak, ingurugiroa errespetatuz ekoizitakoak, eta hurbi-lekoak», azaldu dute. Azokak irauten duen bitartean, Plentziako musikatalde bik kontzertua eskainiko dute. Hala, 11:30ean Ilbet taldearen txanda izango da; ostean, Busker Juicek hartuko dio lekukoa, 13:30ean.

Antzinako azoken izaera berreskuratze guran, egun horretan «base-rritarrez janzteko» proposamena luzatu dute antolatzaileek. ◀

Urduliz

Idi-proben txapelketa egingo da hurrengo aste-akabuan

Aurton ere, Iparraldeko Idi Proba Txapelketa egingo dute Urduliz, maiatzaren 19an, 20an eta 22an. 34. edizio izango da eta probak arrastiko 21:00etan hasiko dira Iparralde kiroldegiko probalekuan. Hala ere, lekuko proba-harria apurtuko balitz, Berangoko probalekuan jarraituko lukeketa jakinarazi dute arduradunek. Proba bakoitzaren egunean egingo dute idien pisatzea, goizeko 10:00etan. Joan den hilaren 7ra arte izan zen idipare parte-hartzaileen inskripzio-epaia eta, modu berean, bakoitzak zein egunetan parte hartuko duen zehazteko



Hilaren 19an, 20an eta 22an izango dira probak.

zozketa ere egin zuten. Urdulizko proba puntuagarria izango da Euskadiko eta Bizkaiko txapelketetarako. ◀



Taularatu

ÁLEX YGARTUA
Aktorea eta zuzendaria

Oso barregarria!

Bizipoza gure bizitzan lelo moduan eduki behar dugu? Bizitzeko alaitasuna beharrezkoa dugu? Gorlizen baietz pentsatzen dute! Gorlizko Udalak Umore Gauak ekimenaren 2. edizioa antolatzen dabil. Uztailaren 7an, 8an eta 9an, euskarazko eta gaztelaniazko hainbat antzezlan ikusteko aukera izango dugu. Pasa den urtean Gorka Aguinagalde, Patxo Telleria, Mikel Martinez edo Gemma Martinezek bere lanak taularatu zituzten. Jende-mordoa hurbildu zen Gorlizko Eleiz plazara. Oraingo honetan Maribel Salas, Olatz Beobide, Txafilas edo Diego Perez ikusteko aukera izango dugu, beste batzuen artean.

Apuntatu: uztailak 7, 8 eta 9, Gorlizko Eleiz plazan. ◀

Marineorta parkeko makinak ondo erabiltzeko ikastaroa

Udalerriko hainbat parketan daude nagusiei begirako askotariko gimnasia-makinak. Pertsona askok erabiltzen dituzte, osasuna hobetzeko guran; baina, denek ez dakite zelan erabili behar diren. Hori dela eta, makina-mota horiek behar bezala erabiltzen erakusteko tailerrak antolatu ditu Urdulizko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiagaz batera. Ikastaroak Marineorta parkean egingo dituzte. Joan

den hilaren 8an egin zuten lehenengo saioa, eta interesa dutenak ekainaren 27ra arte bertara hurreratu ahal izango dira, martitzenetan, 11:30ean. Makinen erabilera horretan sakontzeko, hainbat begirale egongo dira, eta ariketak modu egokian zelan egin ere irakatsiko dute. Euria egitekotan saioak kultur etxean egingo direla jakinarazi dute antolatzaileek. ◀

info+: www.urduliz.eus



Askotariko ekimenak antolatu dituzte, plentziar eta gorliztar denen gozamenerako. © PIRITX ETA PORROTX

Egitaraua

Maiatzak 12, barikua

20:30 Adarretatik Zintzilik euskal komedia nostalgikoa, Plentziako Danontzat gaztetxean.

Maiatzak 20, zapatua

18:00 Kontu eta Kantu ipuin-kontaketa, Plentziako Danontzat gaztetxean.

Ekainak 17, zapatua

20:00 Maiderren kontzertua. Maider Zabaldegik Zuei lana aurkeztuko du, Gorlizko Eleiz plazan.

Uztailak 4, martitzena

17:00 Pirritx eta Porrotxen umeentzako ikuskizuna, Plentziako Ontziola plazan.

Irteerak

Hilak 14, 21 eta 28 / ekainak 4 eta 18 Herri Urrats (Senpere), Sortzen (Iruñea), Ibilaldia (Mungia), Euskal Eskola Publikoaren jaia (Gasteiz) eta Araba Euskaraz (Bastida).

Euskara Agenda

Udara arteko egitarau oparoa antolatu du Plentziako eta Gorlizko Euskara Agenda bateratuak: antzerkiak, kontzertuak eta irteerak egongo dira, besteak beste.

Gorlizko eta Plentziako Euskara Agenda bateratuak ez du etenik. Aste Santuko oporraldiaren ostean, egitarau luze eta oparoa antolatu du datozen hilabeteotarako. Hala, hilaren 12an, barikuan, *Adarretatik Zintzilik* ikuskizuna egongo da gozagai Danontzat gaztetxean, 20:30etik aurrera. Astebe-

te beranduago, hilaren 20an, *Kontu eta Kantu* saioa izango da leku horretan bertan, 18:00etan. Orduan, ipuin kontalariak hainbat istorio kontatuko dituzte, abesten duten heinean. Ostean, ekainera arte itxaron beharko da hurrengo saioaz gozatzeko. Izan ere, ekainaren 17an izango da Maiderren kontzertua, Gorlizko Eleiz enpa-

rantzan. Bertan, 20:00etatik aurrera, Maider Zabaldegik *Zuei* lana aurkeztuko du gorliztar denen aurrean. Azkenik, Pirritxek eta Porrotxek ume denen irribarrea agerian uzteko saioa egingo dute uztailaren 4an, Plentziako Ontziola plazan. Horretarako hitzordua 17:00etan ipini dute.

Bestalde, udalerrri bi horietako bizi-lagunek hainbat jaitara joateko aukera izango dute; hau da, Euskara Agendak Herri Urrats, Sortzen, Ibilaldia, Euskal Eskola Publikoaren Jaia eta Araba Euskaraz jaialdietara joateko

autobusak antolatuko ditu. Horieta-koren batera joan gura duenak alde zuzenetik izena eman beharko du, Plentziako Goñi Portalen edo Gorlizko kultur etxean.

Gorlizko eta Plentziako euskaldunen sarea handitzeko helburuagaz martxan ipini zuten iaz Euskara Agenda. Izan ere, udalerrri bietako egoera soziolinguistikoa oso antzekoa da, eta asko dira herri batetik bestera doazen herritarrak. Hori dela eta, horri aurre egiteko guran sortu zuten egitasmoa, Mankomunitatearen bitartez. ◀

Eskualdeko euskal hiztunen sarea handituz

Urte osoan aukeran egon arren, orain da unerik onena Uribe Kostako Berbalagun egitasmoan izena emateko. Horretarako, interesa dutenek hiru aukera dituzte: e-mail bidez antolatzaileek egindako fitxa beteta bidaltzea; telefono bitartez egitea; edo norberaren herriko kultur etxera hurreratuz. Berbalagun egitasmoa euskaraz berba egiteko programa da eta, gainera, jende berria ezagutu, euskararen munduan murgildu eta euskaraz bizitzeko aukerak eskaintzen ditu. Berbalagunak 5-6 pertsonako taldeetan elkartzen dira, astean behin, taldeak berak aukeratzen duen orduan eta egunean. Horrez gainera,



info+: uribekostakoberbalagun@gmail.com

Berbalagun guztiak batuko dituzten ekintzak antolatu ohi dituzte, esaterako ikastaroak, txangoak eta berbaldiak. Modu horretan, euskararen harreman-sareak gehiago zabaldu gura dituzte antolatzaileek. ◀

Maiatzaren 22ra arte aurkez daitezke Getxoarten parte hartzeko eskabideak

Getxoarte 2017n parte hartu gura duten artista denek beren proiektuak aurkeztu ditzakete Algortako Villamonteko kultur etxean. Eskabideak jasotzeko epea maiatzaren 22an amaituko da. Guztira, Getxoarteren epaimahaiak 30 proposamen hautatuko ditu eta proiektuak azaroaren 17tik 19ra egongo dira ikusgai Areetako Xake plazan. Aretoa karrera profesionalaren hasieran dauden artistei zuzenduta dago, merkataritza ordezkaritza eduki zein ez. Halaber, Getxoarteren epaimahaiak erakutsiko diren lanen artean bat hautatuko du, kalitatea, formatua eta proiektua kontuan izanda. ◀

info+: www.getxo.eus

Umeen transexualitatea jorrazteko lehendabiziko material didaktikoa aurkeztu du Chrysallisek

Umeen transexualitatea umeak eurakaz lantzeko berariazko lehendabiziko ikus-entzunezko material didaktikoa sortu du Chrysallis Euskal Herriak, transexualitate egoeran dauden adin txikikoen familien elkarrekin. Eta ikastetxei, liburutegiei zein ludotekei gonbitea egin die hilaren 17an, Transfobiaren aurkako Egurenaren harira, bideoa proiektu dezaten umeen artean errealitate horren hausnarketa sortzeko bide bezala. Elkarrekin iriziz, transfobiari aurre egiteko modurik onena ezagutza zabaltzea da. Hori dela eta, materiala web orrian eskegi dute, edonork jaitsi eta erabili ahal izateko. ◀

info+: www.chrysalliseh.eus

hirukagenda

Uribe Kostako astekarria

2017ko maiatzaren 11tik maiatzaren 17ra arte



hiruka.eus

Aktore euskaldun ezagunek taulatuiko dute *Jainko Basatia* obra. © TXALO PRODUKZIOAK



SOPELA

Jainko Basatia lanak, Rezaren antzerkia oinarri

Txalo Produksioak konpainiak *Jainko Basatia* antzerki-saioa eskainiko du maiatzaren 12an, Kurtzio kultur etxean, arrastiko 08:00etan. Helduentzako euskarazko komedia dramatikoa da; umeen arteko liskar batetik abiatuta, ezkonduta dauden bikote biren gorabeherak kontatuko ditu antzezlanak. Seme-alaben arteko liskarra konpontzeko saio bake-

tsuak 180 gradu bira emango du, elkarki egundokoak eta bi esanez, eta batak besteari frustrazioak eta miseriak leporatuz. Antzezlana Yasmina Reza frantziarraren *Le Dieu du Carnage* antzezlanean moldaketa da. Roman Polanski zuzendariak zinemarako egokitu zuen 2011n; Europan filmatu zuen, jatorrizko obra New Yorken kokatzen bada ere. Jodie

Foster, Kate Winslet, Christoph Waltz eta John C. Reilly aktoreakaz filmatu zuen Polanskik.

Aitziber Garmendia, Mikel Losada, Andoni Agirregomezkorta eta Tessa Andonegi aktore euskaldunak egin du lan gurean Txalo Produksioak konpainiak, eta Begoña Bilbao obraren zuzendaria. Saretrak 6 euroan daude salmentan. ◀

ANTZERKIA

MAIATZAK 12, BARIKUA

Interculturalidad

19:00 | Algortako kultur etxea | Getxo
Kontularien klubeko saioa. Sarrera: doan.

MAIATZAK 13, ZAPATUA

Under the sea

11:00 | Areetako elkartegia | Getxo
Ipuin-kontaketa, ingelesez. Sarrera: doan.

MAIATZAK 14, DOMEKA

Sala de espera

19:00 | Andrés Isasi musika-eskola | Getxo
XI. Emakumeak Eszenan zikloaren barruan. Gaztelaniazko ikuskizuna. Sarrera: 3 euro.

Max Txikia

12:30 / 17:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
1-4 urte bitarteko umeentzako 30 minutuko ikuskizuna, euskara hitsean. Sarrerak: 3 euro (umeak) eta 5 euro (helduak).

MAIATZAK 18, EGUENA

Los bolsillos de Bel de Bil

18:00 | Villamonteko liburategia | Getxo
Anabel Murok Ipuinaren Ordua programan egingo duen doako ikuskizuna. Gaztelaniaz. 5-9 urte bitartekoentzat.

FaKiu

20:00 | Azoka zaharra | Erandio

Antzerki EguEnak programaren barruan, euskara hitsean egindako antzerki-lana eskainiko du ATX Teatroak; gidioia Fredi Paia idatzi du. Doan.

OLERKIAK

MAIATZAK 17, EGUAZTENA

Olerkizaleen kluba

19:00 | Algortako kultur etxea | Getxo
Amalia Iglesiasek olerki-saioa eskainiko du, Versadas Olerki Klubeokaz.

LEHIAKETAK

MAIATZAK 13, ZAPATUA

Herri-bazkaria

15:00 | Andra Mariko kirolegia | Getxo
San Isidro jaietako herri-bazkaria, Auzo elkartearen ekimenez.

MAIATZAK 13, ZAPATUA

Book Trailerren III. sariketa

11:00 | Algortako Gazteklua | Getxo
Sari-banaketa eta publikoaren saria

MAIATZAK 12-15

San Isidro jaiak, Getxon

Andra Mari | Getxo
Egitaraia: 3. orrian eta www.hiruka.eus-en.

IKASTAROAK

MAIATZAK 13, ZAPATUA

Nordic Walking saioa

17:00 | Elizako plaza | Gortiz
Nordic Walking modura egiteko ibilbidea. Informazio gehiago: euskaditrek.com

MAIATZAK 14 ETA 15

E-posta: Gmail

11:30 | KZ Gunea | Gortiz
Posta elektronikoa behar bezala erabiltzeko ikastaro praktikoa. Adin guztientzat.

KIROLAK

MAIATZAK 14, DOMEKA

Isidro Deunaren XXVII. Eskupilota Txapelketako finalak

11:00 | Andra Mariko frontoia | Getxo
Promesak, zaleak eta eliteak.

MAIATZAK 19, 20 ETA 22

XXXIV. Idi-probak

11:00 | Iparralde kiroldegia | Urduliz
Idi-probak antolatuko dira Urdulizko Iparralde kiroldegian. Sarrera: doan.

TXANGOAK

MAIATZAK 13, ZAPATUA

Mendi-irteera

Berango
Munarrikolanda mendi-taldeak ibilaldia antolatuko du Aldudes (Iparralde), Otsamunho (901 m) eta Errola (907 m) mendietara.

ERAKUSKETAK

MAIATZAREN 21.ERA ARTE

Leku eta bazterrak

Kurtzio kultur etxea | Sopela
Rosa Diaz Garciaren argazki-erakusketa.

MAIATZAREN 2TIK 31RA

Zirri Marrakoen artelanak

08:30 | Algortako kultur etxea | Getxo
Arte-tailerreko ikasleen obraren erakusketa.

MAIATZAREN 11TIK 20RA ARTE

BERANGO

Paperezko hegazkinak filma, euskaraz

Mundu-mailako paperezko hegazkinen txapelketara doan 11 urteko Dylanen istorioa kontatutako digu 2014an sortutako filmak. Adin guztientzako lana maiatzaren 14an proiektatuko da, euskara hutsan eta doan, Berango Antzokian. ◀

LEIOA

Últimos días en la Habana, Perseon

Hegoamerikar Zinema zikloa eskaintzen dabilza Perseo zineforumeoak; maiatzaren 16an, Fernando Pérez zuzendariaren eta Abel Rodríguez gidogilearen filma proiektatuko dute, 20:00etan, Kultur Leioan. Sarrerek 2,5 euroan daude. ◀

ERANDIO

Belaunaldien arteko jardunaldiak, eskolan

Jado-Compasión-eko DBH 4. mailako ikasleek aspaldiko ikasleen klase magistrala jasotzeko aukera izango dute maiatzaren 16an, 12:00etatik 12:30era. 12:30etik 13:00etara esperientziak partekatuko dituzte umeek nagusiakaz. ◀



Komedia sentimental eta nostalgikoa da Ane Zabalak eta Gaide Pérezek antzeztuko dutena. © BIBA KULTURA

Adarretatik zintzilik, Plentzian

Plentziako eta Gorlizko Euskara Agenda Bateratuaren barruan, Euskal Komedia Nostalgikoak *Adarretatik Zintzilik* antzezlana eskainiko du Plentzian. 40 urte betetzeak dakarren krisialdi sakona kontatuko du ikusizumak; Ane Zabalak eta Gaider Pérezek antzezten dute. ◀

Noiz: Maiatzak 12, barikua.

Ordua: 20:30.

Non: Danontzat Gaztetxea (Plentzia).

Sarrera: doan.

AZOKAK

MAIATZAK 14, DOMEKA

Txakinartoren azoka agroekologikoa

11:00 | Ontziola plaza | Plentzia
Txakinartoko kontsumo-taldeak azoka agroekologikoa antolatuko du. Pintxo-potea, tailerra eta bestelako jarduerak egongo dira.

BERBALDIAK

MAIATZAK 11, EGUENA

Personas tóxicas vs personas positivas

18:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
Nuria Sorli psikologoak eskainiko du berbaldia. Saioa gaztelaniaz izango da, eta doan.

MAIATZAK 17, EGUAZTENA

Laguntza teknikoak eta etxebizitzaren egokitzapen txikiak

18:00 | 3. adinekoen aretoa | Gorliz
Zainduz programako berbaldia. Bertan parte hartzeko izena ematea beharrezkoa da; doan.

MAIATZAK 18, EGUENA

Aquello estaba deseando ocurrir

19:45 | Algortako kasinoa | Getxo
Leonardo Padurak liburua inguruko literatur berbaldia eskainiko du. Sarrera, doan.

Elkarrekin Esnatzeko Ordua

19:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
Kirmen Uribe idazleak bere azken liburua izango du berbabide, Irakurte Klubean.

JAIKAK

MAIATZAK 13, ZAPATUA

Gazte asanbladaren X. urteurrena

12:00 | Kalezulo gaztetxea | Erandio
Askotariko jarduerak egongo dira 12:00etatik aurrera Erandioko Kalezulo Gaztetxean, besteak beste azoka, futbolin erraldoia, irratsaioa, kiliikiak, pailazoak, gazte-bazkaria, kontzertuak... ◀

MAIATZAK 14, DOMEKA

Udaberri Jaia

12:30 | Udaletxeko plaza | Sopela
Euskal dantzak, herri-musika eta erromeria antolatuko dira udaberria agurtzeko. Egun erdiko ospakizuna izango da.

FEEKOOkoen lanak

11:00 | Algortako kultur etxea | Getxo
FEEKOOk tailerreko ikasleek egindako pinturailanak, Diego Lastraren ekimenez.

MUSIKA

MAIATZAK 18, EGUENA

Pedro Makay

20:00 | Silver's Tavern | Getxo
Getxon Zuzenean programaren barruan eskainiko du kantauroak kontzertua, Algortan.

MAIATZAK 12, BARIKUA

Sanisidroetako kontzertuak

20:30 | Kiroldegiko aparkalekua | Getxo
Bidean erromeria, Hexen, Zazkel, Akatz eta DJ Txankletak kontzertuak eta musika-saioak eskainiko dituzte, doan.

MAIATZAK 13, ZAPATUA

Andreen aurrekua eta erromeria

17:00 | Elizako plaza | Gorliz
Txililituak taldeak andreen aurrekua eta erromeria antolatuko ditu. Sarrera, doan.

ZINEMA

MAIATZAK 11, EGUAZTENA

No sin Ella

18:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
Genero-ikuspegiko zinema, Itzartu elkartearen ekimenez. Sarrera: doan.

MAIATZAK 12, BARIKUA

Comanchería

21:00 | Andrés Isasi musika-eskola | Getxo
Cinema Paradiso programak David MacKenziereen lana proiektatuko du. Ingelesez. 12 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 2,90 euro.

MAIATZAK 15, ASTELEHENA

El Olivo

19:00 | Berango Antzokia | Berango
Zinema-saioa 7 urtetik gorakoentzat izango da. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

DANTZA

MAIATZAK 13, ZAPATUA

Herrien Jaialdia

21:00 | Kiroldegiko frontoia | Getxo
Bertoko Itxas Argia eta Kataluniako Ball de Gitanes de montemelo taldeek dantzatuko dute San Isidro jailetako dantzaldian.

2

www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.

1

Bidali informazioa helbide elektronikoa honetara: hiruka@hiruka.eus

Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:



Barikuan, maiatzaren 12an, antolatu du Kantagunek Gorka Knörr abeslari ezagunagaz kantaldia. © AMAIA ZABALO

Bost urte, kantuen artean

Kantagunek bosgarren urteurrena ospatuko du: historia gogoratzeaz gainera, Gorka Knörrren kantaldia egongo da.

Maiatzaren hasieran Plentziako Kantaguneko V. Kantalaguna ekitaldia antolatu zuten. Kaleak jendez bete ziren Kantagune taldearen bosgarren urteurrenean, eta tal-

dekideek doinuak ipini zituen. Kaleko kantarien korroak (horrela definitzen dute euren burua Kantagunekoek) 19:00etan eman zion hasiera ekitaldiari, eta lehen atal horretan ordura arte egindako jarduerak birpasatu zituz-

ten; gainera, akordura ekarri zituzten jaialdiaren ibilbide osoan omentutako pertsonen izenak: Antton Valverde, Fermín Balentzia, Juan Antonio Urbeltz, Sabin López de Gereñu, Mikel Inunziaga, Galder Seguro, Gabi de la Maza, Gontzal Mendibil, Toti Martínez de Lezea, Getari Etxegarai, Josu Zarate edo Itxartu Antzerkia, besteak beste. Uribe Kostako Euskal abesti eta

folkloreko artisten omenaldietan, hondartzako Perseida Gauean, Gabon kantetan, eta abarretan izan dira Kantagunekoak. Argi mantendu da hasieratik taldearen helburua: «Garrantzitsuena euskal abestiez eta dantzez gozatzea da, kalean kantatuz» adierazi dute Kantagunekoek. «Ondo edo txarto kantatu, garrantzitsuena zure gustukoa izatea eta ondo pasatzea da», azaldu du Ion Azpiazu taldekideak. Kantagunek entsegu irekiak egiten ditu, eta hilean bitan kantujirak antolatzen ditu, bertan parte hartu gura duten guztientzat. Euskal Herriko 234 abesti jasotzen zituen kantutegia argitaratu zuen 2014an, 1.000 ale plazaratu zituzten. Aurten, kamiseta-kantutegi interaktiboa kaleratu dute: QR kodetun kamisetak. Sakelako telefonoaren bidez kodea irakurtzean, Kantaguneko jarduera guztiak ikus zitezkeen.

Kantujira eta afaria

Aurtengo edizioiko gonbidatu berezia Gorka Knörr abeslaria izango da, Plentziaraino hurreratuko baita musikaria maiatzaren 12an, kantaldi bat eskaintzera, 19:00etatik aurrera. Bere saioa amaitzean kantujira egingo dute eta eguna amaitzeko afari-omenaldia egingo diote Plentziako Kai Eder jate-txean, 22:00etan. Kantaldian eta afarian parte hartzeko izena ematea beharrezkoa da. Kantaldia doakoa izango da, baina afarira joan gura dutenek 15 euro ordaindu beharko dituzte. ◀

Hitza emanda



Lorail

Iritsi da loraila edota maiatza; hil ederra: gogoak loratzean datza... Uda laster heltzeko badut esperantza lore artean berriz egiteko dantza!



PAULE LOIZAGA LEGARRA
Bertsolari sopeloztarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Getxoko III. Book Trailer lehiaketak 15 lan jaso ditu, irabazleak hilaren 13an sarituko dituzte

Kalabazan Kultur Ekimenak antolatzen duen Getxoko Book Trailer lehiaketak hirugarren edizioiko irabazleen izenak iragarriko ditu maiatzaren 13an. Sari-banaketa Algortako Gaztelekuan egingo dute, 11:00etan. Zaputuko ekitaldian aurtengo lehiaketako sariak banatzeaz gainera, Publikoaren Saria zein lanak jasoko duen bozkatzeko aukera egongo da, jendaurrean orduantxe bertan. «Aurton, 15 book trailer inguru jaso ditugu, eta espero dugu kopuruak urtez urte gora egitea, astiro bada ere», adierazi du Irati Astobietak, Kalabazaneko kideak. *Book trailer*-ak bidez egindako liburuen iragarkiak dira, film trailerak egiten den antzera, liburuen alde aipagarrienak kontatuz. Getxoko *Wanted* lehiaketaren ondorioz jaiotako kultur jardueren elkarte da Kalabazan; *Booktrailer* proiektuagaz irabazi zuten lehiaketa orain dela urte batzuk, harrezkero txapelketa leku askotara zabaldu da. ◀

Bilbo Hiria txapelketako izen-ematea, ixtear

Maiatzaren 15a izango da azken eguna Bilbo Hiria musika-txapelketan izena emateko. Talde hasiberrientzako eta gazteentzako lehiaketa da, eta berbarako iaz Euskal Herriko, Espainiako eta nazioarteko 626 musika-talderen lanak jaso zituen. Aurtengo txapelketan parte hartu ahal izateko betebeharrak ondoko hauek dira: taldekideak 18-35 urte bitarteko gazteak izatea, Europako edozein herrialdekoak, hiru kanta bidali beharko dituzte lehiaketara, taldearen inguruko informazioagaz batera, besteak beste. Bilboko Udalak adierazi duenez, talde hasiberrientzako lehiaketa izanda, bete beharreko beste baldintzetako bat da taldeak kontratu diskografikodun disko bi baino gehiago ez izatea. Izena emateko epea igarota, jasotako lan guztietatik 38 baino ez dituzte aukeratu: pop-rockeko 24, metaleko 10 eta joera berrietako 4. Lehenengo aukeraketa gaitutako duten horiek zuzen-



Iazko edizioaren une bat. © BILBOKO UDALA

neko kontzertua eskainiko dute Bilbo-rocken (Merced kaia, 1, Bilbo), irail eta urri bitartean. Pop-rock eta metaleko generoetan hiruna finalista aukeratuko dituzte. Finala zuzenean egingo da Bilbo-rocken eta hiru sari egongo dira pop-rock eta metal generoetan, eta bakarra joera berrietan. Publikoaren saria ere egongo da. Lehiaketak 20.700 euro banatuko ditu sarietan: musika materialean, grabaketetan eta *Azkena Rock* zein *Resurrection Fest* jaialdian jotzeko aukera izango dute talde bik. ◀

«Pascuala de Arrezubietari kale bat izateko ohorea kendu diote»

Javier Campo idazle algortarrak *Getxo en sus calles. Con nombre propio* liburua idatzi du. Bere bigarren lana da.

TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA
ARGAZKIA: HODEI TORRES

Javier Campok abegikor egin du berba Getxoko kaletegiaren gainean egin duen ikerketaz. Aurretik, Portu Zaharreko ermitaren inguruan beste liburu bat idatzi zuen.

Zelan bururatu zitzaizun azkenengo liburu honetarako ideia?


Metroan pertsona bi entzun nituenean berbetan. Batek esan zuen Juan Sebastián Elkano kalean bizi zela eta hura nor zen ideiarik ere ez zuela. Orduan otu zitzaidan. Ahalegindu nintzen jakiten zenbat kalek zeukaten pertsona-izena, zeintzuk ziren eta horien gainean ikertu ahal bazen, historia bat osatu eta gaur egun modan dagoen memoria kolektiboa berreskuratzeko.

Guztira, zenbat denbora eman duzu liburu hau osatzeko?

Hiru urte eta erdi. Hiru urte, liburua egiteko; eta sei hilabete, argazkietarako. Liburuak 320 argazki ditu: biografia denek dagokien kalearen argazkia daroate, irakurlea koka dadin. Gainera, ahalegindu naiz antzinako argazkiak ipintzen, garaia islatzeko. Erretratuak lortu ditudanean ere ipini ditut.

Zein prozedurari jarraitu diozu?

Teknologiak gure esku utzi dituen tresna denak erabili ditut. Internet da lehenengo pausoa, baina ez da beharrezkoena, ezta onena ere; kontu handia izan beharra dago sarean topa daitekeenagaz. Batez ere, mota denetako artxiboen informazioan oinarritu naiz: Derioko elizbarrutikoarena, sakramentu-erregistroetarako; Eusko Jaurlaritzarena; Aldundiarena; Simancasko artxiboarena; Valladolid, Salamanca eta Segoviako artxibo militarrena. Bestalde, museoak eta fundazioak ere ara-



Javier Camporen ikerketen arabera, Marina de Ybarra deitzen zen Algortan kalea izango duen andrea. Udalari eskatu dio iker dezan, plaka ipini aurretik.

katu ditut. Oso baliagarriak izan dira denak. Artxiboetan datu gutxi edo bat ere topatu ez dudanean, familiengana jo dut. Denek hartu naute maitasun eta errespetu handiz; nik ere eurek esandako guztia errespetatu dut. Horrelakoetan, sendiei bidali dizkiet nik idatzitakoa, esan zezaten zuzentzeko edo gaineratzeko zer edo zer bazuten, edo zehaztasunen bat ahaztuta bazuten. Harreman oso ona egon da familiakaz eta erabat eskertuta nago.

Zein pertsona kostatu zaizu gehien?

Baten batzuk ez dira errazak izan, egia esateko. Arreta handiena eskatu didate Máximo Agirrek, Areetarentzat izan zuen garrantziagatik, eta Evaristo Churruak itsasadarrantzat, inguruarentzat eta Bizkaiarentzat izan zuen inportantziagatik. Horietaz aparte, beste bik zarrada handia sortu didate. Lehenengo, Juan Bautista Zabala da: algortarra Kubaraino joan zen mutikoa zela; han, azukre-ingenioei esker diru asko irabazi zuen. Algortara bueltatu zen


kapital handi batez. Ezkondu bakoa eta seme-alaba barik, 1910ean bere ondarea utzi zuen, neska eta mutil behar-suentzat eskola bat egiteko. Gaur egun ez dago garai hartako pobreziarik eta analfabetismorik, baina 107 urte beranduago ondare horrek hainbat laguni on egin die. Bigarrena, kupo ezaguna-

“ Internet da ikertzeko lehenengo pausoa, baina ez da beharrezkoena, ezta onena ere ”

ri lotuta dago: Novia de Salcedo. Aparteko ikasketarik ez zuen arren, euskal foruen defendatzaile sutsuetako bat izan zen, Madrilek kendu gura izan zituenean. Gaur egun oraindino foruak baldin baditugu eta kupoa zein kontzertu ekonomikoa negoziatzeko aukera badugu, besteak beste, Novia de Salcedok horretan lagundu zuelako da.

Zein da emakumeen presentzia?

Gutxi aurreratu da horretan. Azken urteotan, kale edo plaza bana ipini diete hiru emakumeri: Sor María Josefak, Neguriko Karmen elizaren aurrean dauden mojen kongregazioaren sortzaileak, plaza txiki eta polita dauka; Sorne Unzueta *Utarsusek* Malakate ondoko oinezko kale bat dauka; eta azkenik, María de Ibarra kale berria izango da. Herri-kontsulta baten bidez ipini diote izen hori orain arte Txikia plaza zenari. Emakume horren berri eman zuen Cristina Ayuso historiagileak, emakume getxoztarren gaineko liburuxka batean. Bertan dio emandako tratu txarreatik senarra epaiketara eroan zuen lehenengo emakumea izan zela. Baina, 35 urte lehenago, Pascuala de Arrezubietari andreak ere salatu zituen tratu txarrak, suhiaren aldetik jasandakoak kasu horretan. Uste dut generobortizkeria bera dela senarrak egindakoa ala suhiak egindakoa izanda. Hala, Pascuala de Arrezubietari kale bat izateko ohorea kendu diotela uste dut. ◀



«Euskal historiaren azken 100 urteak kontatu ditut oraingoan»

Kirmen Uribe Urbieta (Ondarroa, 1975) idazleak Sopelako Kurtzio kultur etxea bisitatuko du maiatzaren 18an. Irakurketa Klubak gonbidatuta, berbaldia eskainiko du bere azkenengo nobelaren inguruan: *Elkarrekin Esnatzeko Ordua*, Gerra garaian girotutako eleberria da. Idazketa-prozesuaz, pertsonaiez, formaz eta gaiaren inguruaz jardungo da, besteak beste.



TESTUA: JON GOIKOURIA LARRABEITI / ARGAZKIA: HODEI TORRES

Zertan zatoz maiatzaren 18an Sopelako Kurtziora? Irakurle Klubean nire azken nobelari buruz hitz egingo dut: *Elkarrekin Esnatzeko Ordua*. Bertan izango dira eleberria irakurri duten pertsona taldea, eta azken lan honetaz arituko gara: idazketa-prozesuaz, pertsonaiez, formaz, gaiaren inguruan... inpresioak partekatzea izango da jardunaldiaren helburua.

Zer kontatzen duzu *Elkarrekin Esnatzeko Orduan*? Istorio erreala kontatzen dut eleberrian, pertsonen arteko benetako istorioa. Nobelaren istorioa hirukote baten inguruan jaiotzen da: Karmele Urresti, protagonista nagusia, Ondarroako erizain bat da. Gerra familiak zuen den-dena kendu dio eta Parisera erbesteratuko da, Eresoinka talde kulturalakaz. Bertan bere senarra ezagutuko du Bilboko Orkestra Sinfonikoko musikari ezaguna den Txomin Letamendi. Elkar ezagutu eta gutxira, Bigarren Mundu Gerra hasiko da eta Venezuelara joango dira, baina bertan egonik, Agirre Lehendakariak Zerbitzu Sekretuan sartzea eskatuko dio Txomini. Horixe da nobelaren abiapuntu nagusia. Istorioa hirugarren pertsonaia Manu Sota da, Ramón de la Sota Llano enpresari aberatsaren semea. Manu Sota, aita ez bezala, bohemioa zen, Cambridgen ikasitakoa eta oso pertsona kultua, 20. hamarkadan Bilboko bizitza kulturala mugiarazten zuena. Euskal Selektzioa sortzeaz gainera, Eresoinka enbaxadako zuzendaria izango da. Gainera, Euskal Gobernuko ordezkari zabalduko du New Yorken, lehen aldiz. Txominen lagun mina da, eta

hiru pertsonaia honek batera Agirre Lehendakaria, Roosevelt, Wallace presidente ordea, Guridi, Hemingway... bezalako pertsonaia historikoak agertzen dira eleberri honetan eta istorioa protagonisten bizitzakaz nolabaiteko harremana izango dute, modu batean edo bestean.

Beti idatzi nahi izan dudana nobela aipua agertzen da Susa Edizioak argitaratutako *booktrailer*-ean. Aspaldidanik ezagutu izan dut Karmele Urresti eta bere istorioaren zertzelada batzuk. Bere istorioaren

“ **ETAren su-etenak adierazi du gizartea atzera begiratzeko prest dagoela. Dokumentatzen hasi nintzen orduan** ”

berri izan nuenean euskal historiaren azken 100 urteak kontatu zitezkeela ikusi nuen. Ez bakarrik euskal historia politikoarenak; gerra-aurreko giroa, Gerra Zibila, Bigarren Mundu-Gerra, erresistentzia garaia, erbesteak, euskal kultura babesteko egin ziren ahalegin guztiak, ETAren sorrera... Franco hil arte. Garai hori dena lehen pertsonan kontatu dut liburuan. Emakume honen iraganagaz gure historia-

ren hausnarketa egin dezakegula uste dut. Liburuak irakurtzen duenak Euskal Herrian azken 100 urteetan zer gertatu den jakingo du, zalantzarik gabe.

Zelan ezagutu zenuen Karmele?

Amaren laguna zen. Amak esaten zidan emakume hark istorio ona zuela eta noizbait elkarriketatu behar nuela. Baina Karmele hil egin zen eta ni oso gaztea nintzen. Momentu horretan ez nintzen gai sentitu istorio hau paperera eramateko. Aurreko nobela biak idatzi ostean eleberria egitea erabaki nuen. ETAren su-etenak adierazi du gizartea atzera begiratzeko prest dagoela. Orduan dokumentatzen hasi nintzen.

Egundoko lana dokumentatzeko.

Lau urte eman ditut dokumentatzen eta nobela idazten. Dokumentaziorako Bilboko Artxibategian, Kataluniako Artxibategi Nazionalan, Estatu Batuetan, senideei elkarriketa ugari egin dizkiet... Dokumentazio-lanek ezagutzen ez genituen datu ugari eman dizkigute istorioa behar bezala eraiki ahal izateko.

Idea sortzen zaizunetik liburuak idazten duzuna arte, zelakoa da zure sormen-prozesua?

Oso luzea. Liburuak intuizioetatik sortzen dira. Hasieran buruan laino bat baino ez dago, eta laino hori saretu edo gauzatu behar da. Eszena, irudi, esaldi edo pertsonaia batetik sor daiteke nobela bat. Nik Karmele Urrestiren pertsonatik abiatu nintzen. Nobela guztiak ez dira berdin idazten. Nire liburuan, autorea ez



Elkarrekin Esnatzeko Ordua

Egilea: KIRMEN URIBE URBIETA
Argitaletxea: Susa (2016)

Sinopsia

Karme Urresti Ondarroako erizaina da. Gerra Zibilak den-dena kendu dio eta Parisera erbesteratuko da Eusko Jaurlaritzak sortutako Eresoin taldeagaz. Bertan Txomin Letamendi tronpeta-jolea ezagutuko du, Bilboko Orkestra Sinfonikoko musikari prestigioduna. Maitemindu eta Venezuelaraino ihes egingo dute Bigarren Mundu-Gerra dela eta. Bertan egonda, Agirre Lehendakariak Txominegaz-kontaktatuko du eta Zerbitzu Sekretuan sartuko du, Euskal Herriraino bueltatuz.

Abentura honetan, bikote honegaz batera Manu Sota egongo da, Txominen lagun mina.

da orojakilea; autorea ikertzen dabil denbora osoan zehar, gizon-emakume hauen bizitza arakatzen. Aurkikuntzak egiten diren heinean, eleberriak birak dauzka alde batera edo bestera, eta egileak zein irakurleak ez daki zer gertatuko den istorioan zehar.

Zelan bihurtu zinen idazle?

Betidanik izan naiz literaturzalea eta irakurlea. Gure etxean *storytelling* asko egon da: amonak, aitonak, amak, aitak... hitz egiteko eta iraganeko gauzak kontatzeko zaletasuna izan dugu betidanik familian. Nire kasuan, oso goiz hasi nintzen irakurtzen eta oso naturala izan da prozesu hau nire bizitzan zehar. Institutu garaian idazle izango nintzela oso argi neukan eta lortu dut dagoeneko.

Liburuak idatziz bizi daiteke gaur egun?

Ni bizi naiz, baina ez dakit... Oso zaila da idazle profesionala izateaz bizitzea: euskal irakurleak ez dira asko eta horregatik norberaren liburuak beste hizkuntzetara itzuli beharra dago. Ez da erraza, baina erabaki hori aspaldi hartu nuen. Hasiera batean ez neukan dirurik kontu-korrontean, baina aurrera jarraitu nuen. Niretzat oso garrantzitsua da idazle profesionala izatea. Ez du zerikusirik oportetan idaztearekin.

Bost eguneko lan-egunak edo zazpi egunekoak?

Bost egunekoak, mesedez! Kar-kar. Zazpi egunekoak ezta pentsatu ere! Bi egunetan jaia behar dut. Literatura esparruko langilea naiz eta gainera etxean beti

izan dugu kontzientzia handia langileen eskubideen esparruan, mundu hobeago baten aldekoa. Umeak ditut eta eurekin denbora ematea gustuko dut. Idazlea izatea ez da idazteko kontua soilik; irakurtzeko eta pentsatzeko denbora izatea berebizikoa da ere. Askok pentsatu behar da egunean zehar, idazteak lan gutxiago ematen du pentsatsearekin alderatuta.

Literatura modernizatu du *e-book*ak. Horren aldekoa ala kontrakoa zara, edo ez dizu axola?

Irakurlegoa zabaldu egiten dute. Jende asko dago pa-

“**Betidanik izan naiz literaturzalea eta irakurlea. Gure etxean *storytelling* asko egon da: amonak, aitonak, amak...**”

perezko liburuak irakurri ezin dituenak letra-tamaina kontuagatik, erosoak ez direlako agian... jende nagusiarentzat asmakizun izugarria da *e-book*ak, esaterako. Ez daukat gailu honen aurkako iritzirik.

Eta zuretzat?

Nik paperean irakurtzen dut beti, baina internet eta sare sozialak bezalako bestelako baliabide teknologi-

koak erabiltzen ditut. Teknologia berrien aldekoa naitzela esan daiteke, kar-kar. Hala ere, Estatu Batuetan egon naizenean konturatu naiz teknologiaren maitale sutsuak izan arren paperean irakurtzearen ohitura daukatela, azken batean plazerra delako liburuak paperean irakurtzea, kar-kar.

Proiekturik baduzu begibistan epe labur edo luzera?

Ez dut astirik izango buruan ditudan ideia guztiak paperera eramateko, kar-kar. Epeak beti jarri behar dira bestera, kontuak gehiegi luzatzen dira, eta nik ideia ugari dauzkat buruan. Kontua da ideiak buruan oso ederrak direla. Arazoa ideia horiek paperera eramatea izan ohi da.

Bertan kontu asko jasotzeko beharra dagoelako?

Liburu baten idazketa gehiegi luzatzea ez da komenigarria. Liburu batek idazleak berak bizitako momentu bat kontatzen du. Epeak ezarri behar dira, azterketekin gertatzen den bezala: ondo edo txarto egin dezakezu proba, baina hiru orduetan azterketa amaitu behar duzu. Gainera, nire ofizioaren sineslea naiz: nobelak bata bestearen atzean idatzi behar direla uste dut. Horrela egiten da idazle on bat.

Zer daukazu buruan oraintxe bertan proiektu berriei dagokienez?

Nobelak, poesiak... Momentu honetan *Itoizeko* Juan Carlos Pérez artistarekin elkarlanean nabil opera lan baten libretoa sortzen ari naiz egun hauetan zehar. ◀



Faduran ibiliko dira neska-mutilak jolasean. © GETXOKO UDALA

Eskolartekoan, kirolean jolas

Getxon kirolak jolasteko direla barneratzen dabilta udalerriko ikastetxeetako ehunka neska-mutil. Pasa den barikuan hasi zen Eskolarteko Kirol Jokoen edizio berria.

Getxoko Eskolarteko Kirol Jokoei ekin zieten 1.300 bat ikaslek pasa den barikuan. Izan ere, Getxo udalerriko ikastetxeek abiatu zituzten Eskolarteko Kirol Jokoa egun horretan; ekimen hori martxan ipintzen duten zortzigarren aldia da. Algortako Fadura auzoko kiroldegian egin zituzten lehe-

nengo olgeta-saioak eta leku berean jardungo dute hurrengo txanda bietan ere: maiatzaren 12an, eta maiatzaren 19an, biak barikuak. Ekimen horren helburua da kirol-praktika ez lehiakorra sustatzea, Lehen Hezkuntzako 2. mailako, 4. mailako eta 6. mailako umeen artean. Ekimena garatzeko Getxo Kirolak udal-erakundearen lagun-

tza daukate ikastetxeek. Hilaren 5ean, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek probak izan ziren; hilaren 12an, 4. mailako txanda izango da; eta, hilaren 19an, ostera, 2. mailakoak hurre-ratuko dira Faduraraino. Hala, denera, 1.300 ikasle inguruk parte hartuko dute Eskolarteko Kirol Jokoa horietan, Getxoko Udalak ezagutarazitako datuen arabera.

Denetariako kirolak

Neska-mutilak zenbait probatan lehiatuko dira, esaterako atletismoa, he-

rri-kirolak eta errugbian. Gainera, aurreikusita dago Lehen Hezkuntzako 2. mailako umeek psikomotrizitate-probak egitea, eta jolas eta gaztelu puzgarriez gozatzeko aukera ere izatea.

Topaketa horietan giro ludikoa nagusi izango dela azaldu dute antolatzailleek; ez da sailkapenik egongo, ezta kanporaketa-saiorik ere. Udal-iturriek azaldu dutenez, Eskolarteko Kirol Jokoen asmoa da «eskola-komunitatea zenbait kirol-modalitatetara hurbiltzea, eta horien praktika giro ludiko eta parte-hartzaile batean sustatzea». ◀

Sakonetako gimnastak, garaipenaren bidetik

Maialen De la Peñak, Leioako Sakoneta Gimnastika Erritmiko Taldeko kideak, Espainiako Oinarri Gimnastika Txapelketa irabazi zuen gazteen mailan, Guadajajaran, pasa den apirilaren 27an. Gainera, hiru egun beranduago, kirol-talde bereko Maddi Otaolak brontzezko domina lortu zuen Espainiako Erreginaren Kopan, hiri berean. Soka-ariaketa «hobeezina» gauzatu zuen Otaolak Euskal selekzioagaz, klubak zabaldu duenez. Bestalde, kirol-taldearen arabera, Maialenek eta taldeko beste hiru beteranok «txapelketa bikaina» egin zuten. Modu berean, klube-



Leioan egin zieten harrera. © SAKONETA G. E. T.

ko gazteenek euren lehenengo Estatu espainiarreko txapelketan hartu zuten parte. Pasa den barikuan, taldekideek ondoetorri berezia egin zieten De La Peñari eta Otaolari, Sakonetako kiroldegian bertan. ◀

Urdulizko Antsonekoa jokalaria bila dabil

Urdulizko Antsonekoa areto-futbol klubak talde berria sortzea erabaki du. Kirol-taldeak jakinarazi duenez, gazte-mailako taldea zelairatu gura du datorren denboraldian. Hala, gonbidapena egin die 1999an, 2000. urtean eta 2001ean jaiotako gazteei, hilaren amaieran klubera hurreratu eta probetan parte hartzeko. Baldintza lausoak ipini ditu klubak: «areto-futboleant jokatu gura izatea» edo «ikasi eta gozatzeko» prest egotea besterik ez. Talde horretako jokalariek etorkizunean lehenengo taldera emango lukete saltoa, Lehentasunezko mailara. ◀

info+: 659 125 254 / 661 272 908

Eskola Kirolerako eta Hezikirako foru-laguntzak

Bizkaiko Foru Aldundiak zenbait diru-laguntza eskatzeko epea zabalduko du astelehenean, maiatzaren 15ean. 640.000 euro pasatxo erabiliko ditu Eskola Kirolerako eta Hezikirako diru-laguntzetan. Ikastetxeek, klubek eta udal-entitateek aurkez ditzakete ikasturte honetan egitekoak diren jarduera-proiektuak. Hilaren 26ra arte entregatu ahal izango dira eskaerak. Guztira, 641.914 euro banatuko ditu entitate eskatzaileen artean; emakumezkoen eta desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzea eta entrenatzaileen prestakuntza teknikoak bezalako irizpideak azpimarratuko dira. ◀

Alberto Zubeldiaren hautagaitza da, daborduko, Getxo Rugby Taldeko zuzendaritza berria. Klubak jakinarazi duenez, pasa den apirilaren 26an amaitu zen hauteskunde-prozesua.

Zuzendaritza berria, Getxo Rugby Taldean

Getxo Rugby Taldeko hauteskunde-prozesuan, zerrenda bakarra aurkeztu zen, Zubeldia buru zeukana. Hala, datozen lau urteotan bere taldeak izango du Getxo Rugby Taldea gidatzeko ardura.

Izan ere, kirol elkarteak aplikatu egin ditu klubeko estatutuen 34. artikulua eta Eusko Jaurlaritzaren kirol-klub eta -elkarteentzako 163/2010 dekretuaren 47.1 artikulua.

Biek ala biek zehaztuta daukate hautagaitza bakarra izatekotan ez dela beharrezkoa izango botaziorik egitea. Alberto Zubeldia taldeko jokalaria ohia da eta zelaian ez ezik bulegoetan ere badu eskarmentua. Izan ere, Manu

Etxebarriak eta Jon Etxebarriak gidatutako zuzendaritzetako kide izan zen. Gainera, klubeko zenbait kirol-arlo dinamizatu izan ditu. Beragaz batera, osatuko dute zuzendaritza hona-

Etorkizuna, Ohorezkora bidean

Getxo Etorkizunak ondo hasi du Ohorezko B Mailara igotzeko promozio-fasea. Getxo Rugby Taldearen gizonzkoen bigarren taldeak 42-28 irabazi zion Ferrolgo taldeari, pasa den domekan, Faturan. Hala, Iñaki Pérez Ortzik eta Unai Bilalabeitiak gidatutako taldeak mendean hartu zuen Galiziako Lehenen-



Kadeteen brontzea ospatu du zuzendaritza berriak, 18 urtez azpiko Espainiako txapelketakoa. © GRT

ko zerrenda-kideek: José Luis Martínez Uriarte idazkariak, Jon Etxebarria diruzainak, eta Jennifer Mair eta Jesús Javier Martínez Uriarte batzarkideek. Halere, laguntzeko talde zabal bat

izango dute inguruan, klubeko zenbait arlotan parte hartuko duena.

Momentuz lehenatasuna eman go diote kirol-arloari, eta ahaleginak egingo dituzte «denboraldia ixteko falta diren lehiaketetako partiden erronketan», Zubeldiak azaldu duenez. Hala, bide horretan batuko dituzten datuek eta kirol-erronken emaitzek datozen lau urteotarako proiektua baldintzatuko dute. Presidentearen ustez, «kontzienteak gara daukagun erronkaz, baina jakin badakigu denok modu koordinatuan eta noranzko berean bultzatuz gero, gure historiagatik eta kluba maila denetan osatzen duten pertsonengatik, dagokigun lekura bueltatuko garelakoan gaude».

Jolaseta, Lehenengo Mailara, patinen gainean

Jolaseta patinen gaineko gizonzkoen hockey-taldeak egundoko amaiera eman zion denboraldiari Santanderreko La Albericia hockey-pistan, pasa diren apirilaren 29an eta 30ean. Aste-akabu horretan, Espainiako Lehen Mailara igo zen, Estatuko bigarren maila nagusira, beren-beregi. Izan ere OK Liga da patinen gaineko hockey-ligarik nagusia, Estatuan.

Hala, Jolasetako mutilak berriz itzuliko dira orain dela hiru denboraldi (2013-2014) zeuden mailara, urte hartan maila horri ezin eutsi eta koska bat behegaro jaitsi baitziren.

Horrenbestez, iragarpen denak bete dira, getxoztarrak faborito nagusiak baitziren igoera lortzeko. Izan ere, Jolasetak liga-txapelketa bikaina egin du, Ipar Ligan jokatu dituen partida guzti-guztiak irabazi dituelarik. Hala, 24 partida horietan ahal ziren puntu denak batu dituzte: 72. Liga horretan, Hego Euskal Herriko, Kantabriako eta Gaztela-Leongo klubek jokatzen dute.



© JOLASETA

Ondo baino hobeto moldatu dira Neguriko klubekoak Ipar Ligan, aurtengo ez baita izan bertan egindako balentria bakarra: 1.472 egunetan, lau urte pasatxotan, ez dute partida bat bera ere galdu. Espainiako Lehen Mailara igotzeko jokatu zuen fasean, Jolasetak honako arerioak izan zituen: Roller Oviedo, Asturiaseko txapelduna; Liceo, Galiziako txapelduna; eta Loiu-ko Urdaneta, Ipar Ligako bigarren sailkatua. Negurikoek 6-2 irabazi zieten asturiarrei eta 3-2 Liceori. Ligaxka-sistemari esker, berdin izan zitzairen Urdanetaren aurka 3-7 galtzea.

BAPIRUKE

UDALEKU IREKIAK

1. Ekainak 26-30 | 2. Uztailak 3-14 | 3. Uztailak 17-28

Euskaraz komunikatu ezin direnentzat
TONIA: 1. Aldai Patronatza; 2. eta 3. Romo, I.B. Zabala (8-12 urte) & San Nikolas Ikastola (5-7 urte).
NOBENTZAT: 5 eta 12 urte arteko ume erdaldunentzat.
PLAZA KOPURUA: 1. txandan 3 leku; 2. eta 3. txandetan 5 leku toki eta txanda bakoitzean.

Euskaraz ondo egiten duten umeentzat
TONIA: 1. Aldai Patronatza; 2. eta 3. Romo, I.B. Zabala (8-12 urte) & San Nikolas Ikastola (5-7 urte).
NOBENTZAT: 5 eta 12 urte arteko ume euskaldunentzat.
PLAZA KOPURUA: 1. txandan 27 leku; 2. eta 3. txandetan 45 leku toki eta txanda bakoitzean.

Prezioa:

- Bazkideek: 1.txandan 40 euro, 2. eta 3. txandan 80 euro txanda bakoitzak.
- Bazkide ez direnek: 1.txandan 55 euro, 2. eta 3. txandan 110 euro txanda bakoitzak.
- Getxon oinarritzko errenta jasotzen dutenek: *20 euro txanda bakoitzak (*Lanbideren ziurtagiria eta titularraren NANaren fotokopia ere ekarri behar dute).

Izena emateko bulegora ekarri behar dira:

- Ingresoaren ziurtagiria (umearen izen abizenekin). Laboral Kutxa: 3035 0108 06 1081032766
- Osakidetzako txartelaren fotokopia (aurretik eta atzetik).
- Izen emate orriak sinatuta (2 orri dira; web orritik jaitsi daitezke. Soilik gurasoak edo tutore legalak sinatu ditzake).

Izena emateko epea eta ordutegia:

- Bazkideentzat: maiatzaren 15 & 16 (egunero 10:00-13:15 eta 16:30-18:00).
- Bazkide ez direnentzat: maiatzaren 17 & 18 (egunero 10:00-13:15 eta 16:30-18:00).

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.BIZARRALEPOAN.EUS web gunean



Talde-lanean

JON LOPEZ SAEZ
Entrenatzailea eta kazetaria

Txikikeriaren eta txikitasunaren arteko borroka

Jendetza biltzen dituzten talde eta ekitaldiak esku bakar bateko hatzekin zenba daitezke. Kirola, zeozer bada, txikia da. Kirola, ia oso-osorik, harmaila txikietan, patio txikietan, klub txikietan eta eskola txikietan gauzatzen da. Bertan bihurtzen da kirol. San Mames edota Miribillako frontoi eta kantxaren irudiak salbuespena dira.

Kirola txikia da. Kirolari, entrenatzaile, zuzendaritza batzorde eta elkarte txikiek osatzen dute kirola, gure kirola behintzat. Eta hortxe daukagu erronka, txikikeria ala txikitasuna hautatu. Ahaleginak alde batera edo bestera zuzendu. Sekula ez gara erraldioak izango, baina gure izaera txikiaren ezaugarriak aukera ditzakegu.

Txikikeria etsitasuna da, konformatzea. Txikiak garelako gauzak modu hobean ezin ditzakegula egin pentsatzea da. Gure bideragarritasun ekonomikoa diru-laguntzen menpe uztea; kirol-arloko erabaki eta lanak inolako gaitasunik, formaziorik ezta laguntzarik ez duen edozeini uztea da txikikeria. Kirola gure edo gure seme-alaben denbora betetzeko bigarren mailako ekintza dela pentsatzea.

Txikitasuna, ordea, kirolean benetan sinestea da. Txikiak garelako gauzak gero eta hobeto egin behar ditugula sinetsi eta sinestaztea da. Bideragarritasun ekonomikoa lortzeko bestelako moduak bilatzea. Lan-talde profesionalak eraikitzea. Hezitzaile nortasuneko entrenatzaile profesionaletan oinarritzea gure proiektuak. Kirola gure eta seme-alaben formazioaren erdigunean kokatzea. Kirolaren balioak berezkoak dituzten proiektuak sustatzea, babestea eta maitatzea.

Azken finean, kirolaren handitasunari gure esparru txikien txikitasuna batzea ez legoke txarto eta ez, askotan gertatzen den bezala, txikikerietan burua galtzea. ◀

Kluben arteko triatloia

Neguriko Golf Errege Klubak, Jolaseta Errege Klubak eta Abrako Itsas Errege Klubak erabaki dute hiru kirol-elkarteen arteko lehiaketa bat sortzea. Ekimen horren helburua, jakinarazi dutenez, «hiru klub arteko harremanak sakontzea» da, kirol-jardunaldi «dibertigarri» batzuen bidez. Horretarako, inskripzioa bete duten hiru klubetako kideak nahastuko dituzte zenbait taldetan, ezaugarri «ludikoa» nagusitu dadin eta «kideen arteko harremanak sustatzeko», lehiakortasuna isiotu barik.

Hala, taldekako kirol-probak egingo dituzte datozen hiru aste-akabuetan. Lehenengoan, maiatzaren 13an eta 14an, golf-jardunaldiak egingo di-

tuzte Glean, Neguriko Golf Errege Klubaren lursail zabalean. Bigarren asteburuan, Neguriko Jolaseta klubaren instalazioetan jokatu da lehiaketa getxoztarra. Klubek aurreratu dutenez, bertan praktikatu duen kirola padela izango da. Azkenik, ekainaren 3an eta 4an, bela-estropada egingo dute Abrako Itsas Errege Klubeko instalazioetatik. Proba hori amaituta, ekainaren 4an, domekan, sari-emaldia eta itxiera-cocktaila egingo dituzte klub horretan bertan.

Izen-ematea zabalik dago maiatzaren 11ko 14:00ak arte. Inskripzio-orria bete daiteke Abrako Itsas Errege Klubeko webgunean. ◀

izen-ematea: Rcmarsc.es



Leioa B gazte-taldea, Ohorezko Mailara

Lehentasunezko Mailatik Ohorezko Mailara igo da Leioa Kirol Elkarteko bigarren gazte-taldea. Hamaikakoa txapeldunordea izan da orain arteko mailan, baina bigarren postuak ez dio kendu igotzeko txartel zuzena. Gainera, ospakizuna pasa den apirilaren 30ean egin zuten urdin-gorriek, liga amaitzeko partida bat oraindino geratzen zitzaizenean. Data hartan, 1-3 irabazi zioten Morazari eta matematikoki ziurtatu zuten leku bat sailkapeneko hiruren artean, igoera postuetan. Dena den, ez dira bakarrak izan Leioako zale gazteei poztasuna isiotzen: Leioako lehenengo gazte-tal-



© LEIOA KIROL ELKARTEA

deak orain dela hilabete bat ziurtatu zuten igoera Euskal Ligatik Nazio Ligara. Bulegoetatik heldu zitzaizen igoera, Añorga taldeak bidegabeki jokalaria bat zelairatzeagatik. Ondoren, Liga irabazi zuten. ◀

Astobiza Kopa egin da Abran, lehenengo aldiz

Astobiza Kopa estreinatu zen pasaden aste-akabuan, Abrako uretan. Bela-estropada berria antolatzeari ekin dio Abrako Itsas Errege Klubak. Hiru jardunaldietako lehena amaitu zen joan den asteburuan, udako giroagaz. Oraingoan, *Maitena*, *Bacilón*, *Artako* eta *Biobizz* dira sailkapeneko buruak. Estropada mailan, Mikel Emaldiren *Maitena* gutxigatik nagusitu zitzaion Javier Onaindiaren *Symphonyari*; Gurutzeontzi 1 modalitatean, Javier Truebaren *Nexusek* sei minutuko atzerapena dauka *Bacilón*agaz alderatuta; Gurutzeontzi 2 klasean, oster, *Marmotinha* da bigarrena. ◀

Bizkaiko bela arineko txapela, Olabarriztat

Haize-ufada gogorak eta ekaitzek baldintzatu zuten Bela Arineko Bizkaiko Txapelketaren bigarren eguna. Apirilaren 29ko estropada normaltasunez egin bazen ere, hurrengo egunean estropada-batzordeak bertan behera utzi zuten jardunaldia. Hala, lehenengo probaren irabazleek jaso zituzten Bizkaiko txapelak. Juan Olabarririk berriro irabazi zuen Optimist modalitatean; Ignacio Castilok, Optimist Bn; Natalia Carreira eta Ana de Córdoba (L'Equipe), Andoni eta Iñigo Lejarraga (FEVA), Nicolás Viar (Laser Radial), eta Ignacio Aja (Laser 4.7) izan ziren beste irabazleak. ◀

Alderantzizko Estropada irabazi du Lasaik

Alderantzizko Estropadaren 33. edizioa irabazi zuen Gonzalo Arnal nabigatzaileak, pasa den maiatzaren 1ean. Arnalek Sun Odyssey 32 modeloko *Lasai* belaontzia gidatu zuen helmugaraino, ordu bat, 46 minutu eta 55 segundo zeharkaldian eman ondoren. Bigarren postuan sailkatu zen Jose Miguel Francoren *Bacilón*, 5 minutu eta 21 segundora. Podiuma Juan Valdiviak bete zuen, bere *Gaitero* belaontzia 7 minutura baino gehiagora sartu arren. Denera, 50 ontzik eta ia 300 eskifaia-kidek parte hartu zuten estropada bitxi horretan. Alderantzizko Estropadaren ezaugarri



© ABRACO ITSAS ERREGE KLUBA

nagusia da ontzi-modalitateen arteko denbora-konpentsazioak estropadaren irteeran egiten direla, helmugara heldu ostean egin beharrean. Hala, helmuga gurutzatzen duen lehenengo ontzia da beti irabazlea. ◀

hirukalagun

Hau da zure txokoa!

hiruka zaitez...
eta abantaila askoz goza egizu!

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Non da? lehiaketa



SARIA

Producciones Serranori esker,
April Verch-en kontzerturako sarrerak
zozkatuko ditugu

Sarrerak lortu gura badituzu, maiatzaren 16a (martitzena) baino lehenago, bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Maiatzeko saria

«Akabuko martxea» eta «Dominica» DVDak



Hilabete honetako sari hori HIRUKAlagun eta bazkide guztien artean zozkatuko dugu. Zozketan parte hartzeko, bidali maiatzaren 31 (eguztzena) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?



Alboko QR kodea eskaneatuz (telefono mugikorraren bidez), edo bestela:

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna/
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

HIRUKA Koop.elk. Martikoena, 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikizitatea helarazteko. Bestelako erabilerek erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar dute. Erabiltzaileak gura duenean datuok zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetara idatziz: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

		3	7			5		
8			1					7
2		5			8	3		
				4		9		7
	3			7				
	8	6						3
	2							4
	9							3
		7		2		6		

Gogoan har egizu
1etik 9ra arteko zenbaki
denek agertu behar
dutelaz zutabe, ilara eta
azpilauki bakoitzean.

Soluzioa

5	8	9	1	2	6	7	4	3
3	2	7	4	8	9	1	6	5
4	6	1	7	5	3	8	2	9
2	3	4	6	1	5	9	8	7
1	5	8	9	7	2	6	3	4
7	9	6	3	4	8	2	5	1
9	1	3	8	6	4	5	7	2
6	7	2	5	3	1	4	9	8
8	4	5	2	9	7	3	1	6

+ Guardiako farmaziak, maiatzaren 17ra arte

Barrika

ZULOAGA. Udaletxeko bidea, 2. 946 774 716.
Zapatuan, 09:00-14:00.

Berango

EGUIA. Sabino Arana kalea, 20. 946 680 360.
Astegunetan, 09:00-22:00.

IRUSTA. Aitz Gane kalea, 1. 946 680 153.
Domekan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Erandio

ARRIOLA. Obieta, 40. ALTZAGA. 944 670 022.
Zapatuan eta domekan, 09:00-22:00.

ARRUTIA. Obieta, 15. ALTZAGA. 944 674 711.
Astegunetan, 09:00-22:00.

DÍAZ. Etxegorri kalea, 3. ASTRABUDUA.
944 170 291. Zapatuan, 09:00-14:00.

GASTEARENA. Meso, 24-26. ASTRABUDUA.
944 175 200. Zapatuan, 09:00-14:00.

TEIJELO. J. A. Agirre pl., 8 bis. ERANDIOGOIKOA.
944 530 124. Zapatuan, 09:00-14:00.

Getxo

ALZOLA. Arene kalea, 4. ALGORTA.
944 306 570. Astegunetan (astelehena izan ezik), 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik hurrengo eguneko 09:00ak arte; zapatuan, 10:00-13:30 eta 22:00-09:00; eta domekan eta astelehenean, 22:00-09:00.

ARISTEGUI. J. B. Zabala, 1. ALGORTA.
944 911 798. Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00.

EZQUERRA. Ollarretxe, 27. ALGORTA.
944 303 328. Egunero, 09:00-22:00.

JIMÉNEZ. Illetas, 12. ALGORTA.
944 301 352. Egunero, 09:00-22:00.

LÓPEZ-LINARES. Kasune, 10. ALGORTA.
944 302 632. Astegunetan (astelehenean izan ezik) eta zapatuan, 09:00-22:00.

MORÓN. Bidezabal, 2. ALGORTA. 944 319 007.
Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00.

SARRIA. Telletxe, 1. ALGORTA. 944 910 556.
Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00.

ARRIOLA. Amaia, 29. AREETA. 944 805 328.
Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00.

BAYANO. Ibaigane, 9. AREETA. 944 638 460.
Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ELLACURIA. Andrés Larrazabal, 5. AREETA.
944 637 971. Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00; astelehenean, 09:00-13:30.

ANDRACA. Maidagan, 61. GETXO. 944 914 697.
Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

GALARZA. Aingeruaren etorbidea, 2. GETXO.

944 914 704. Astegunetan (astelehenean izan ezik).

MONASTERIO. Gorbeia Mendia, 1. ITZUBALTZETA. 944 630 865. Astegunetan (astelehenean izan ezik) eta zapatuan, 09:00-22:00.

NÚÑEZ. Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA. 944 631 809. Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00; eta domekan, 09:00-13:30.

Gorliz

ABURTO. Itsasbide kalea, 5. 946 775 452.
Barikuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz; astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

ROMERO. Itsasbide, 20. 946 128 941. Zapatuan, 09:00-13:30; eta astelehenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Leioa

ANGULO. Kandelazubieta, 19. 944 645 185.
Domekan, 09:00-22:00.

NARDIZ. Mendibile, 1. Leioa. 944 800 484.
Martitzenean, 09:00-22:00.

TIEMBLO. Sabino Arana kalea, 89. 944 803 191. Barikuan, 09:00-22:00.

ORTEGA. Artaza kalea, 8. NEGURIGANE. 944 608 501. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ONA. Maiatzaren Bata kalea, 4. PINUETA. 944 630 066. Astegunetan, 09:00-22:00.

SAN ANDRÉS. Larramendi plaza, 2. PINUETA. 946 572 295. Egunero, 09:00-22:00.

Lemoiz

GONZALEZ. Portubidea kalea, 7. ARMINTZA. 946 879 341. Egunero, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Plentzia

ARAMBURU. Erribera, 20. 946 775 301.
Astegunetan, 09:00-22:00.

Sopela

DOLARA. Sabino Arana, 28. 946 129 547.
Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ITURBE. Iparragirre, 3. 946 764 768.
Astegunetan, 09:00-22:00; eguztenez, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ERAZO. Loiola Ander Deuna, 50. LARRABASTERRA. 946 762 363. Astegunetan, 09:00-22:00; martitzenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ZUMÁRRAGA. Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA. 944 047 600. Astegunetan, 09:00-22:00.

Urduliz

PARAMO. Aita Gotzon, 9. 946 764 507.
Astegunetan, 09:00-22:00.



© ALGORTA CENTRO VETERINARIO



© BIKELNOR

Amu pozoituak

Animaliekiko tratu txarren gaitz berria

Azken urteotan pozoiez edo iltzez beteriko janari-zatiak agertu izan dira eskualdeko hainbat txokotan. Albaitariak diote horiei lotutako hainbat etxeko animalia artatu behar izan dituztela inguruotan.

IKER RINCON MORENO

Txakurrak oso kuxkuxeroak dira izatez, eta askotan arazoak izan ditzakete euren jakin-gose horregatik. Izaera harrapakaria eta haratusteljalea izanda, aurrez aurre aurkitzen duten eta interesa sortzen dien dena jan ohi dute. Hori dela eta, ugazabek neurriak hartzeko beharra dute, euren maskotek kalterik izan ez dezaten. Etxean zein kalean, etxe-animientzat kaltegarriak izan daitezkeen hamaika elementu dago, berbarako pertsonentzako botikak, intsektizidak, pestizidak eta garbiketarako produktuak. Horrenbestez, gura ez diren ezbeharrak ez jazotzeko, animalientzat arriskutsuak izan daitezkeen gauza horiek denak euren irismenetik kanpo uztea gomendatzen dute adituek. Modu horretan, maskoten intoxikazio-istripurik ez gertatzea lor daiteke. Hala ere, azken urteotan, gure inguruotako kaleetan beste arazo mota bat agertu da: pozoitutako edo iltzez beteriko amuena.

Lantzean behin abisuak agertzen dira sare sozialetan, mota horretako amuak aurkitu dituztela ohartarazteko. Algortako Hezetasuna auzoan eman zuten azken jakinarazpena; inguru horretako auzokideek azaldu zuten, Alangoko osasun-etxetik Iturribarri aldeko parke eta berdeguneetara bitartean, pozoitutako hainbat gazta zati aurkitu zituzten. Aurreko batean, oster, iltzez beteriko txorizo zatiak aurki-

tu zituzten Bidezabalgo metro-geltokiaren ondoan. Abisuak egon badaude, baina Getxoko eta Sopolako udaltzaingoez adierazi dutenez, ez dute mota horretako salaketarik jaso azken aldian. Hala ere, horrek ez du esan gura pozoitze-kasurik egon ez denik. Izan ere, azkena orain dela hilabete inguru izan zen.

Udaltzaingoez salaketarik jaso ez duten arren, txakurrak pozoitu direnaren kasuak eman dira, albaitarien arabera

Jon Vildosola Algortako Bikelnor klinikako albaitariak jakinarazi duenez, arratoi-pozoia zuen gazta zati bat jan zuen txakur bat artatu behar izan zuen pasaden hilean. «Leioako Pinosolo parkean jan zuen txakurrak pozoia; zorionez, jabeak ikusi egin zuen, eta zuzenean etorri zen klinikara. Oka eragin genion animalari, pozoia bota zezan; hala egiaztatu ahal izan genuen arratoiak akabatzeke pozoia zela».

Arratoi-pozoia erabilerak ohikoa da kalean, udalek arratoiak hiltzeko kanpainak egiten dituztenean betiere. Hala ere, Vildosolak azaldu duenez, pozoia horiek ez dute leku irisgarrietan egon behar,


eta, are gutxiago, gazta zatiez inguratuta. Hartara, amuak begi-bistan egotearen arrazoiak bi izan daitezkeela uste du: «enpresak berak lana txarto egin duela, edo pertsona batek animaliak hil gura dituela». Dena dela, aurreko kasu horretan, gai toxikoa gazta zati batean agertu izanak animaliak hiltzeko «nahitasuna» agerian uzten duela dio Vildosolak.

Jazoera horren ostean, pozoitutako txakurraren ugazabak Udaltzaingorenera jo zuen, baina «inor salatzerik ez zegoenez» ezin izan zuen salaketarik egin. «Hortxe dago arazoa», dio Patricia Martinez Goikoetxeak, Algorta albaitaritzazentzako aditua, «halako kasuetan salaketak ipintzea eskatzen dugu albaitariok, baina zaila da. Izan ere, lehenengo eta behin, animalia intoxikazio baten eraginez hil dela frogatzeko beharra dago. Gero, pozoia edo amuak ipini dituen aurkitzeko beharra dago, *in fraganti*. Pozoia eraginez hil dela demostratzea zaila da, baina intoxikazio horren arduraduna aurkitzea are zailago da».

Sopolako Udaltzaingoa jakinarazi duenez, halako kasuren batean, autorerik ez, baina, gurata eragindako pozoitzearen zantzurik egonez gero, ikerketa abiatuko lukete, inguruko albaitariak harremanetan ipiniz, sendaketaren bat egin duten ala ez argitzeke. Bestalde, arduraduna nor den jakingo balitz, zuzenean atestatua zabalduko lukete eta ustezko egilea ikertzen hasiko lirake, delitua egiteagatik.

Intoxikazio-motak

Animaliak hiru modutan intoxika daitezke: azaletik, arnastetik edo ahotik. Toxikoei dagokienez ere hiru mota daude: neurologikoa, digestiboa eta antikoagulatzailea. Martinezek azaldu duenez, badira gai-



© HODEI TORRES

xotasunak intoxikazio batez nahas daitezkeenak, «baina diagnostiko bereizlea egin ondoren, zerbait arraroa agertuz gero, susmoa har dakiok». Intsektizidak toxiko neurologikoak dira, eta animalien nerbio-sisteman eragiten dute; kasu horietan, gorputz-dardarak eta desorientazioak gertatzen dira. Toxiko digestiboen kasuan, ostera, okadak eta kakapirriak izan ohi dira sintomarik ohikoenak. Azkenik, antikoagulatzaileek odolgabetzeak eragiten dituzte; mota horretako pozoia ohikoena arratoiak hiltzekoa izaten da, eta oso hilgarria da etxeko animalietan.

Albaitariak diotenez, artatutako animalien kasuan, gura barik intoxikatutakoak izan ohi dira, «animalientzako arriskutsuak diren askotariko produktuak daudelako leku guztietan». Hala ere, pozoia horiek erabilia amuak ipintzearen helburu «argia» txakurrak edo katuak hiltzea dela deitoratu du Martínezek. Iltzez edo kristalez jositako amuen kasuan ere helburua berbera dela dio: «Orratzak dituen saltxitxa edo txorizo zati bat aurkitzen dugunean, argi dago norbaitek animalia horiek hiltzeko helburua duela. Horiek jaten dituztenean, ez dira gai elementu horiek digeritzeko, eta kaka egiten dutenean barrutik urradurak egiteko eta peritonitis bat jasateko arriskua dago, besteak beste».

Zer egin behar da intoxikazio baten aurrean?

Sintoma txikiena dagoenean, zuzenean albaitariarengana jotzea gomendatzen dute adituek. Zantzuak aldakorak dira, hartutako sustantziaren arabera. Hala ere, ohikoak dira okadak, dardarak, paralisiak, delirioak, odol-jarioa, arnasketa-arazoa eta konortea galtzea, besteak beste. Murtziako Unibertsitateko Zerbitzu Toxikologikoak aipatu duenez, zu-

zuzenean animaliak zerbait arriskutsua irentsi duela susmatzen bada eta hura kontziente badago, unean bertan oka eragin ahal zaio, % 3ko ur oxigenatua erabilia, berbarako. Hala ere, neurri horregaz kontuz ibili beharra dagoela aitortu du Martínezek: «pozoia denean bakarrik izan daiteke neurri hori baliagarria. Iltzeak edo kristalak tartean daudenean, berriz, kalteak eragin ditzakegu, urradurak eragin ditzakegu lako oka eragiterako orduan». Hori dela eta, zentzudunena zuzenean klinika batera joatea dela azaldu du, bertan albaitariak hartu beharreko neurriak har ditzaten. «Animalia bat intoxikatzen denean, hura lasaitzeko lasaigarriak eman behar izaten dizkiogu askotan. Ondoren, urdail-garbiketa egin ohi dio-

Animalien kontrako tratu txarren kasuetan sei eta hamazortzi hilabete arteko kartzela-zigorra ezar dezakete

gu, eta, azkenik, tratamendua ipini. Baina, tamalez, beti ez da onik ateratzen. Kasu bakoitza ezberdina da», deitoratu du albaitariak. Berbarako, Iñigo Esteban Lezkano gazte algortarraren txakurraren kasuan, ezin izan zuten ezertxo ere egin hura onik ateratzeko. Gazteak akorduan duenez, joan den 2013ko abenduaren 11n hil zen *Kala*, «hiruzpalau eguneko kontua izan zen. Hasieran ondo zegoen, baina pixkanaka-pixkanaka arraro zegoela nabaritzen hasi nintzen». Gogoratzen duenez, *Kala* txakur aktiboa zen, leku batetik bestera arazo barik ibiltzen zena, edozein ehiza-txakur moduan. Hala ere, halako batean,

jateari utzi zion. «Hori ez zen ezohikoa, noizbait egin zuen goizeko pentsua ez jatenarena, baina halakoe-tan gauean jaten zuen bai! Hurrengo egunean, goibel ikusi nuen, geldia goa. Kakapirria zuen eta noizean behin oka egiten ahalegintzen zen, baina alferrik, ez zuen ezer botatzen, ez zuelako ezer jaten. Orduan bai, hori dena arraroa egin zitzaidan, eta albaitariari deitu nion». Hark gastroenteritis bat izan zitekeela erantzun zion; baina, hurrengo egunean txakurrak okertu jo zuen. «*Kala* sukaldean botata zegoen, mugitu ezinik, odolez inguratuta. Odola zerion ipurditik, eta, zuzenean, albaitariarenera eraman nuen. Hala ere, alferrik izan zen, bertara heldu eta ordu erdira hil zen...». Klinikako albaitariak zuzenean ebatzi zuen pozoia eraginez intoxikatuta egon zitekeela, baina gazteak ez dauka argi non jan ote zuen hori. Delikako baserrian zegoela hasi zen txakurra arraro sumatzen; baina, herri horretan ez zuen ezer aurkitu. Gainera, toxiko batzuen sintomak pozoia irentsi eta hainbat egunera agertzen direla jakinda, txakurrak amua Algortan irentsi ahal izan zuela uste du Estebanek, «Larrañazubi inguruan edo».

Animalien kontrako tratu txarren delitua

Animaliak hiltzeko pozoia edo bestelako elementuak erabiltzea animalien tratu txarrei lotutako arau-haustea eta osasun publikoaren kontrako arazo larria da. Kode Penalaren 2015eko uztailaren 1eko erreformaren ostean, 337 artikulua dio arau-hauste hori «oso larria» dela. Horren arabera, animalia hiltzen bada, zigorra sei eta hamazortzi hilabeteko kartzelaldia izan daiteke, eta bi edo lau urteko gaitasungabetzea ezar diezaiokete heriotzaren eragileari; osterantzean, isun ekonomiko bat izan ohi da zigorra. ◀

Lehen/Orain

Ereaga hondartza



Erretratua

Sorkunde Goikouria Orbe

Erandioko Goi-Alde dantza-taldearen zuzendaria.



Dantzaren eta folkloreaken eroalea da Goikouria. Zainetan daroa euskal folklorea, eta pasio horrek edaderik ez duela erakutsi digu Andra Mari elizan.

Bizitza osoa dantzan eman du Sorkunde Goikouriak. Bost urte baino ez zituela dantzarekiko grina isiotu zitzaion, nebak ere dantza egiten zuen eta Erandioko taldean. Dantzarekiko pasioa Erandio, Asua eta Arratitiek datorkio, belau-naldiz belaualdi transmititzen joan den ohitura izan da erandioztarrarentzat. Ahizpa nagusiak ere gogoko du dantza, eta, herriko ekitaldietan parte hartzeaz gainera, Itxas Argia taldean dihardu; alaba nagusiak ere Goi-Alde-ren gazteen artean dantza egiten du.

Goi-Alde sortu baino lehen, Erandioko *Grupo de Acción Católica* izeneko dantza-taldea zegoen, herriko apai-zak berak osatutakoa. Bertan, herriko gazteek egiten zuten dantza, taldea desagertu zen arte. Urte batzuetan, Erandio dantza-talde barik lotu zen; 1965ean, Goi-Alde dantza-taldea sortu zen arte. 14 urte baino ez zituela, Txorierriko gainontzeko dantza-taldeen batzarretan parte hartzen hasi zen Goi-

kouria, leku batetik bestera: «Eusko Jaurlaritza agertu zenean Estatutuak ezartzen hasi ziren, eta dantza-taldea modu formalean sortu behar izan genuen», azaldu du. Gaur egun, hainbat belaunalditako 150 dantzari osatutako taldea koordinatzen du. Urbe Kostagaz harremanetan izan da, Algortan,

“ Dantzatzea konpromiso pertsonala eta betebeharra da niretzat ”

Lamiakon eta Leioan hainbat dantzaldi egin baititu Erandioko dantza-taldek, eta Euskal Herri osoan dantzatzeaz gainera, munduko hainbat lekutan izan da Sorkunde bere dantzariak. «Dantzatzea konpromiso pertsonala, betebeharra da niretzat. Generazio berriei beste herrietako folklorea eta ohiturak ezagutarazteko tresna da eta». ◀

Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua